



Iturria: *Arantzazu, euskal-sinismenaren poema*, Salbatore Mitxelena. EFA, 1949.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MitxelenaSArantzazu.htm>

ARANTZAZU EUSKAL-SINISMENAREN POEMA

Salbatore Mitxelena

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

ESKEINTZA

Arantzazuko Ama: tori zuretzat, ainbeste zor dizun seme onek eskeintzen dizun lana.

Ez da nerea. Zure Erriarena baizik. Gizaldiz-gizaldi zure babesean eta zuri kantari bizi izandako Euskalerra zarrak abestu izan dizun poema dezu, nik orain andik eta emendik osatua, il-zorian zeuden puxketatxoakain gorputz bat eginda.

Kantazar eta elezar oiei darien poesi-lurruna ta kristautasun sendoa bildu ta, kondaira lagun, itzez jantzi: nik besterik egin al dizut gero?

Edo nai ba'dezu, nik nekazariarena egin det. Jorran ari naizela, uste gabe, lurra arrotu egin diot eta txuloa bigundu, lurpean, or nunbait, gordeta zegoan azi'ari. Eta ernetzen ikusi dedanean, begi-kimua axaldu duan bezin laixter, eguzki pixka bat eman diot. Auxe batez-ere, eguzki pixka bat, biotzeko maitasun-bero pixka bat eman diot, landarea azi dedin eta gero adaburua eman dezan.

Eman dizu bere garaiean. Oraintxe eman dizu. Nolako aundia, kantazarretan-gora agiri zaigun antziña ederreko euskal-Fedea, zukanako maitasunean eta zure laguntza-pean! zuri kantari.

Kanta deizula gaurkoak ere!



ZERU-DEIA

Errodrigo Baltzategi artzaiak, Ama-Birjiña agertu zitzaioneko larunbata artan, lendabizi arran-otsa entzun zuan. Arrana edo ezkillak, nai dezun bezela, kanpaia beintzat. Kanpai aretxek deituta urreratu zan Miraria zegoan elorri-ondora.

Kantazarrak:

Kanpanilla txiki bat
alboan bazuan.
Iñork beartu gabe
soñu jotzen zuan...

LENENGO ALDIA

In splendore ortus tui... (Js, 60, 3)



Sarrera

Talan... talan...
 Aloña'ren maldan,
 atziña zaarraren
 altzo-altzotikan.
 Talan... talan...
 Aloñaren maldan.

Alan, alan
 Matutiak goizan
 egun berrira deitzen
 du esna gaitezana.
 Alan, alan
 Matutiak goizan.

* * *

Baltzategi'ko Errodrigo'txo,
 zorioneko artzaia:
 ik entzun uan lenengo aldiz
 Zeru-deiaren kanpaia.
 Zorio oneko kanpaia eta
 zori oneko artzaia!

Talan... talan...
 Aloña'ren maldan.
 Zeru bera ari zan
 deika kanpai artan.

Berez ari zan jo ta jo deika,
 jo ta jo deika kanpaia...
 Joalea al zan? ala arran-otsa?
 Zer zan aren esan-naia?
 Urreratzen da, bertaratzen da
 laborriz mutil ernaia.
 Bertaratzean, ze ikusiko-ta

—gizaldien ikuskaia!—
 Andre-Maria arantzan-gora
 zabalduz zeru-dirdaia,
 Jesus aurtxo besoan dula
 ta antxe zintzilik kanpaia!
 Zori oneko kanpaia eta
 zori obeko artzaia!

Talan... talan...
 Aloña'ren maldan.
 Aro berri argi bat
 albistatzen zuan:

—«Kantauri orrek ona amen Ama,
 Zeruak dizun doaia.
 Arantz ontatik Ama izango da;
 seme on izaten saia.
 Ona Arantzazu, euskal-Golgota,
 euskal-miñen Opal-maia!
 Emen Kristo'kin egingo zera
 Opaltzalle t'Opalgaia.
 Emaitz aunditan loretuko da
 enda aundi orren erraia.
 Mundu guziak miretsiko du
 zure egikizun garaia...»

Talan... talan...
 Aloña'ren maldan.
 Badaki Euskalerrick
 ze egikizun daukan!

Zori oneko kanpaia eta
 zori obeko artzaia!
 Zorio onena zuk, Euskalerrick;
 badator zure Garaia!



JENTIL-AROA

Antziñako Jentil-aroa erromes-bide bat bezela dezu. Arantzazuko amabosgarren gizaldigallurrera igo ta igo datorren erromes-bidea.

Euskal-Fedea, bertan, bidazti, aldapagora, nora datorren jakiteke.

«Mari-gaizto»rekin burruka etengabe eta kristautasuna sendotu ta gozatuko dion «Ama» baten ametsetan datorrela, bidazti orrek «Andra Mari» du bere miñen eztiarri.

Talan... talan...
Noiztandik ari zan
zerutar arran-otsa
deika Aloña-maldan?
Betidanik? gizaldi
danen ondotikan...?

Bañan, bañan
nolatan e'tzuan
Jentil-aro gaixoak
entzun lendanikan?

Gaixo arek ez jakin
bere naigabea,
onez iñork iñora
dei zeikionikan!

Ta alan, ta alan
erromes-bidean
berekaxa zetorren
galduta illunpetan,
norabaita irteteko
antzi-ametsetan...

Jentil-arok ez jakin
nola an aldatz-mugan

Zeruak itxogiten
zion, Goiz-argitan...!

* * *

Jentil-aro'ko atzea,
erromesbide luzea.
Erromesbide luzean-gora,
bidazti, euskal-Fedea.
Jentilletako aztikeritan
utzi zizun ibarbea.

—«Goazemazu, uxo xuria;
ainbeste egizu nigatik».
Ta uxo xuriak ega jasoaz
erromesari: «Atozkit...»
Amesmenaren egaztiari
ark, ordea, ezin segi...

Arbidearen luzea!
Jun-bearraren nekea!
Gaitzena, alare, joan ta joan
ta azkena ez ikustea.
Noiz ikusiko noiz, Andre-Mari!
zure betarte emea?

Oi Abendu'ko intziria,
intziri penagarria!
griña ezikaitzok menderatzera
eldu zaitea Mesia!
anaitzarako Mesia eta
amatarako Maria.

*Artean ere, ordea, Mari-gaiztok e'tzuan
galdu Jentil-aroko agíntea*

Zaldi-karroza suzkoan,
gaua izar dagonekoan,
aideak-zear pasiatzen da
Mari-gaizto jaurgu osoan.



Aloña, Aralar, Gorbeia, Anboto...,
ibiltzen ditu txangoan.

Mari-gaiztok:

—Odei guzien azpitik,
sasi guzien gañetik.
Ez da Euskalerrin neri burua
makurtuko ez didanik.
Bearko ik ere, kristau erromes;
aitor nazak ik ere, ik...

Erromesak:

—Nik e'tzaitut aitortuko.
Naiago nuke, naiago,
nere burua bertan amildu
zure mende lotu baño.
Zer ikusirik ez det zurekin.
Ni Kristo'rentzako nago.

Mari-gaiztok:

—Erromesak bai adu txar!
nunai arrotz, atzerritar...
Ara Arrasate... Nik jartzen dizkit
ire etxe ta uri su ta gar.
Etixerik ez-ta, ijitu antzo
ik orron ibilli bear...

Erromesak:

—Ni banatorren bezela
zu, orratio, atzera...
Zu ta ni nunbait, gaua ta argia,
ezin alkartuak gera.
Baietzak eza garaituko du
nik zu. Banator jauntzera.

Amorru beltzak artzen du
ta an doa Mari su ta fu.
Aloña-goiko Gaiztozulo'tik
—bizilekua antxe bai-du—

mendeko ditun agintariai
asi da agindu ta agindu:

Mari-gaiztok:

—Aide-nagusi jauntxoak:
urkatu kristau-lepoak,
kizkaldu sutan baserri ta uri,
ebaki sagar-ondoak.
Orretzek uju! eutsiko digu:
goi-bekoen gorrotoak!

Erromesak:

—Aloña orretxen gallen
beste Andre bat sorturen.
Zure jauregi gezurrezkoa
oinpean Ark zapalduren,
Gaiztozulo'ko agintepetik
guziok libra gaitezen.

Ta bertan, dantza ta algara,
Mari-gaizto izarretara...
Ez dezu ikusten aidez iruten
sorginkerizko izara?
illargi-betez koroaturik
buruko ille-aparra...

*Jentil-aro'ko Fedeak Andra-Mari du bere poza ta saria.
Onek beste «Ama» bat agintzen dio, bere antzekoa, baño
obea.*

*Izan ere, antziña artako Andra-Mari batez-ere «Andrea»
izan zan bezela gero Ama-Birjiña batez-ere «Ama»
izango bai-da, xamurragoa, biozbera, bidelaguna...*

Ermitatxo bat eta bi
galtzarak ezker-eskubi.
Ezkaratzetan petrillak dauzke,
erromesa non eseri.
Esaten daude ermitatxoak:
«Emen atseden, bidazti».



Bidaztia, nekez, autsez,
oin urratuak odolez,
ermita aitako batera doa
atsedetera apur batez.
Lenbizi, baña, belaunikatu
ango imajiñari auzpez:

Erromesak:

—Andre-Mari! Abe-Mari!
biotz minduaren sari...
Bide guzian ikus-gogo nun
zure beiratu gozo ori.
Parretxo-izpi bat, aterpe-billa
miñez datorkizunari!

Andre-Mari'k:

—Gaur gauerako ostatu
nere etxean badezu.
Aurrera, baña, Ama obeak
bidera ertengo dizu.
Arantzan-gora arantza-gabe:
ortan ezagungo dezu.

Erromesak:

—Zerori iñolaz, zerori
zerala nago Ama ori.
Zu, sendatuko dizkidazuna
izeri, malko ta zauri.
Orretxen pozak narama arbidez
aurrera, negar ta intziri...

Andre-Mari'k:

—Gaur gauerako ostatu
nere ermitan badezu.
Biar ber-ekin dezazun pozik
orain lo, amets egizu:
nere antzeko Ama berri bat
bidelaguntzat amestu...

Lo dago Jentil-aroa,
Mari-gaiztoren jaurgoa.
Ermitatxotan atsedetean,
amets eztizko aur-loa...
Bere erraieran poz bat darama:
Abendu-amets gozoa!

Arantzazu'ra erromes
dator nekez eta miñez
Jentil-aroko euskal-Fedea,
uste-gabeko arbidez...
Amets-mugara eldutzen dator
eta gaixoak jakin ez!



ARDI TXURIAK LARRE GOXORA

Ardi galduen billa joan omen zan Errodrigo arkaitzarte artara. Galduak, ardi txuri aiek? Bai zera.

Errodrigo iritxi zanerako, antxe zeuden Elorri-arrantzaren ingurumari, bazka gozoan...

Ardi txuriak jakin nun zegoan larre goxoa!

Antxe zegoan Ama Birjiña. Baño artean e'tzan agertzen eman. Ta ari ziran kantari

Zeruan aingeruak:

Oi udaberriz Aloña-maldan
elorriaren lorea!

Min du errekek utzi-bearra
alako txoko maitea.

Zorionsua, txoko artara
iristen dan artaldea!

Lurrean, Oñatiko partean

Emen baño an, gorago eta
nun goxoago larrea,

egunero ta gorago dabil
Errodrigo'n artaldea.

Errodrigo'txok, gaztea izanik,
gaztea eta trebea,
ardi galduak gauero biltzen
badu alare nekea.

Errodrigo'txok:

—Zertara, bañan, ene ardiak,
zoazte gora ta gora,
Uribarri'ko larreak baño
obe ustetan iñora?

Barne-abotsak:

—Utzi ardiak joaten
Aloñan-gora Aloñan-bera
naitara bazka ditezen.
Ardi txuriak berak dakite
larre goxoa non duten.

Zeruan aingeruak:

—Uribarriko ardi txuriak:
utzi beko lañoepa.
Aloñan-gora, Aloñan-bera
dago zerutar larrea.
Ez bildur izan arkaitz-arteko
basapiztien erpea.
Elduko da bai zuen atzetik
Errodrigo'txo ernea...

Lurrean...:

Errodrigo'ri, doan bezela
mendiratzen artaldea,
nai estu batek ozkatzen dio
jarrai-miñez biozpea.

Errodrigo'txok:

—Ene ardian, ardi txuriak,
zerk zaramazte or gora?
Neroni ere gogo ixil batek
deitzen dit zuen ondora!

Barne-abotsak:

—Joan artzaiak lenballen
Aloñan-gora Aloñan-bera
ardi txurien ondoren.
Ardi txurien ondoren junda,
larre goxoa arkituren.

Aloñan-gora Aloñan-bera
pozik euskal-artaldea.



Arantzazu'ko mendian baño
non arki bazka ohea?
Artzai ta artalde, Euskalerrriak
asmatu digu bidea!

*1469'garren urtean agertzen eman zan elorri-gañeko
Miraria. Arrezkero, ao-batez, biotz batez, kantatzen
datoz zeruan aingeruak eta lurtean geroke gizaldiak:*

Oi udaberriz Aloña-maldan
elorriaren lorea!
Elorriaren loretan Lore,
Birjiña Errugabea!

ARANTZAN-ZU?

Arrimallatan altuan dago
Birjiña Begoña'koa.
Alata bere altuagoan
Birjiña Arrate'koa.
Birjin danetan ederrena Zu,
Ama Arantzazu'koa!
(Kantazarra)

Aldakuntza aundia ezagutu zuan gure Erriak Birjiña agertutakoan. Ordurarte, nunai gorrotoa, ikusi-eziña, siñeskeria, jauntxokeria. Agertutakoan, pakeak egin, gorrotoak itzali, sorginkeriak uxatu eta uriak beren buruaz jabetu... Eta gizaldi bat baño len, gure kristautasuna gallur-gallurrera igo zan. Iru santu aundirekin igo, alegia: Loiola, Xabier, San Martin. Uraxen bai gure Kondairaren egunsentia! Bertsolariak du emen eskubidea, beste iñork baño len ongietorria emateko Erri guziaren izenean. Esan baiditeke: kanta-zarrai zor diegula geien-geien Arantzazu'ko Amaren izena ta zabalkundea.

Agur, Arantzazuko Amandre berria.
Ematera natortzu ongietorria.
Bertsolaria nazu, eskolaz urria,
alare jendearen maixu gidaria.

Alaiki ta galaiki nai dizut koplatu
orain zure aurrean pozak dezan leku.
Ez, bada, doñu-zarrak beti miña aidatu.
Gaurdañoko zotiñak yadanik atertu.

Antziñako ametsak emen dira lortzen
ta arantzik zorrotzenak lore eder biurtzen!
Kupiradun Ama bat galdetzen genuen...
Ona Amarik onena arantza-gain emen!



Oñaz ta Ganboa'rrak, danok, bat artuta,
menderatzen dizugu aoz-bera ezpata.
Anaiak alkar-gudan setaz, zer dala-ta?
Ez geiago gudarik zure alde ez pa'da!

Gaiztozulo'ko Sorgin, gaitz danen sort-oge,
legortearen ama, Dama ondatzalle:
zure jaurgoa jun da. Guregandik alde.
Bestelako ona degu onako Ama auxe!

Erregiñen erregin, zeruaren zeru:
orrek arritzen gaitu: nor eta arantzan-Zu?
Arkaitzik zakarrenen artean izkutu,
orrek arritzen ere non eta Arantzan-zu?

Zazpi aizpatxo dira euskaldun Birjiñak,
zein baño zein beltxeran, zein baño zein piñak...
Artu bitza sei aizpen, seiren eskumiñak
danetan gazteenak, danetan txikiñak!

Zazpi aizpa beltzetan erregin zaitugu,
danetan maiteena ta guzien buru.
Alata ere, baña, Ama errukitsu!
non eta Arantzan zaude? nor eta arantzan Zu?

Maitako degu, maita, Amaren arantza.
Maitako degu, baita, Jesusen gurutza,
ilda Ark santuturiko oñaze-zugaitza.
Oien bien gañean kristau-poza datza.

Gure errukiak Arantz ortan jarri zaitu.
Zurekin orko maizter guk ere nai degu.
Arantzan-Zu? Arantzan zurekin ere gu!
Zurea ta gurea izain da Arantzazu!

Euskal-mendi-lerroak mallan-mallan datoz
Aizkorri-gallenean alkartzera gogoz.
Ala euskal-semeak, zuk paketu ondoz,
arantzondo ortaraxe, maitasun eta poz...

Zuretzat euskaldunen obari onenak.
Zuretzat errezkadan mendirik gorenak,
gogokoen dituzun pralleen arrenak,
eztarri garbienen doñu gardenenak...

Zuretzat batez-ere biotz-oparia.
Gau-bijili latzetan gurendu-berria,
tori Euskalerriren anima garbia,
eguzkitan elurra ez bezin zuria...!

Lau probintzien erdi ta Aizkorri'ren altzo,
Arantz orixe degu euskal-kabi goxo.
Gorago ta zerutik are bertanago,
«zerurako bidea ortik gora dago».

Bukatzeraz noazu nere gorasarre.
Ikus zaitudalako ez nijo asarre.
Ezin aztu izango det zure irribarre,
Zugana anpatu arte euskal-maitazare!

Agur, Ama. Banoa, baña ez betiko.
Arantz ortan txoko bat gorde neretzako.
Euskal-bertsolariak e'tzaitu aztuko.
Arantzazu goraltzen ez da azkena izango.



«ERMITATXO BAT EIDAZU...

Auxe izan omen zan Birjiñak Baltzategi'ri azalduta-ko borondatea. Ez noski Errodrigo'rentzat bakarrik. Geroko gizaldi guziak zertu bear bai'zuten egikizun ori.

Oartu «erromantze» ontan euskal Kondaira osoa Amaren esanera. Lenengo, arrizko «ermitagintzan. Ta gero, aldi berean, batez-ere Kristo'ren «Gorpuzgintzan».

Poema osoaren muña ta nondik-norakoa adirazten zaizu emen, alde aurrez eta axal-axalik.

Errodrigotxo joan zanean
ardiengana mendira,
antxen zegoan Birjiña arantzan
artzaitxoari begira:

—Errodrigo'txo Baltzategi'ko;
ermitatxo bat eidazu,
ermitatxo bat eidazu eta
nerea izango zera zu.
Iru latatxo, zazpi tellatxo
asteko asko dituzu.
Elizaunditzen danean biar
geiagorik bearko du.
Nere euskal-sume on askok emen
izango dute ostatu,
izango dute ostatu eta
euskal-Meza non opaldu...

Errodrigo'txo laxter joan zan
Oñatiako kalera,
eliz-gizonai, bertako danai
berriena ematera.
Oñatiarrak laxter jun ziran
prozezioan mendira.

Antxe zegoan Birjiña arantzan
seme berriai begira:

—Oñati-erri txit enetxoa:
ermitatxo eidazu,
ermitatxo eidazu eta
nerea izango zera zu.

Arkaitzak-zear ara bidea
urra zanetik onera,
zenbat gizaldi Aloñan-gora
Birjiñaren esanera!
Ark esandako Ermitagintzan
alik-oro ekitera..
«Arantzazu'ra bidea luze;
aldapa-gora, gañera...»

Oi, baña, Amaren semenganako
irribarre biozbera!
Oi, eskaria lortutakoan
Birjiña Amaren arrera!

—Ene Euskalerrri —esango zien—
nere semea zu zera.

Ots, euskaldunak, goazen bidean
Zeru-deiaren adira,
antxen bai-dago Birjiña arantzan
gu noiz elduko begira:

—Ene Euskalerrri txit enetxoa:
ermitatxo bat eidazu,
ermitatxo bat eidazu eta
nerea izango zera zu.
Arantzazu'ko Eliz ontatxe
izango dezu ostatu,
izango dezu ostatu eta
euskal-Meza non opaldu...



Geroko baten (negu otza zan,
Erregetako bezpera.
Oitura zanez, gau artan ere
bazan bijili-billera).
Iñigo zaldun gazte ezaguna
euskal-anaien legera
Arantzazu'ra, promes eginda...
Elurra Aizkorrin-bera.
Aren bekoki sutua, alare,
e'tzan otzak uki-bera.
Zer amesten zun? zerk beartze zun
alako erroitzartera?
Bide berriak asmotan eta
«indarrak dator artzera».
Antxe zegoan Ama irribarrez
Lensemeari begira:

—Iñigo zaldun Loiola'koa:
ermitatxoa eidazu,
ermitatxoa eidazu eta
nerea izango zera zu.
Iru latatxo, zazpi tellatxo
oiek gutxitxo dituzu.
Euskal-fedea, euskal-Elizak
aundiagoa bear du.
Zurekin dagon Euskalerriak
«bitarteko zu nai zaitu».
Berez ezin dun Elizagintza
zurekin nai du osatu.
Orretarako egingo zaitut
Erri santu onen Santu.
Zer geran iñork galde ba'leza,
esan: Loiola-Arantzazu!
Euskal-izenak ontziburuan
bikoitz auxe eramango du.

Kristo'rengana jo zun Iñigok,
zuzen Jerusalem'era.
Ta Iñigo'rekin santu-bidean

euskaldun danak batera.
Euskal-Eliza Loiola'rekin
jaso zan gallurrenena.
Bañan, alare, e'tzan azkendu
Ermitagintza, ostera...

Euskal-gizaldi etengabeak
eunki batetik bestera
kantatzen gatoz, betetzen goaz
eskari-eskeñi bera.
Nun nai gaituzu, zertan, Amatxo?
gure betiko galdera.
Elizagintzan! —Ark erantzuna—
ta nerea izango zera.
Bost gizaldiko euskal-egintza
dator orren BAIETZ-era,
lau aldiz erre-ala eliza
berriz ereikiz ostera.
Berriz ta berriz jasoko ere
baldin lengoak ba'gera!

—Etengabeko ermitagintzan
euskal-Eliza ari degu.
Bizi artean, ondo dakigu,
orrek bukatzerik ez du.
Gure leia ta gogoa, alare,
dagoneko ikusi dezu.
Elizagintza! zure eskaria
gure Edestiak elburu.
Kristau-Eliza jaso ta jaso!
Egonak zerurik ez du.
Ama zaitugu, seme gaituzu!
orain esan dezakegu.
Ama zaitugu, seme gaituzu
Iñigo degula buru!
Zer geran iñork galde ba'leza,
auxe: Loiola-Arantzazu!



—«Ermitatxo bat eidazu eta
nerea izango zera zu».
Zure eskaria, zure eskeñia
ni ere entzuten naukazu,
zure izenaren ermitagintzan
albait egiteko gertu...
Poema ontan gora zaitzadan
Ama! lagun egidazu.

UXOA: NARAMAZU...

Arantzazura zetorren erromesen bat bidean galtzen
ba'zan, uxoa bat agertzen omen zitzaion bidea era-
kustera.

Onako olerkitxoek beste gidari bat izendatzen dio
uxoak Erdi-aro'ko Euskalerrri bidaztiari: Errodrigo.

—Uxo mandataria:
nondik zatoz, nondik?
—Nondikan natorkizun?
Zeru-goi bertatik,
zuri estura ortan
laguntzeagatik
ta eraman zaitzadan
Zerura zuzenik.

—Uxo mandataria:
ez det nai besterik:
atera nazazula
estura ontatik.
Arren egizu, bada,
ainbeste nigatik:
eraman nazazula
Zerura zuzenik.

—Ni aurretik naizela
atozkit atzetik.
Zerurako bidexka
ondotxo dakit nik.
Mendi santu batera
joko degu lenik,
andik egatutzeko
Zerura zuzenik.

—Ai uxoa gidaria:
alperrik, alperrik.



Zu egan zoazela
ezin jarraitu nik.
Ez didazu emango
beste gidaririk
Mendi santu ortara
naramakeanik,
anditxek igotzeko
Zerura zuzenik?

—Nun dagon Mendi ori
bada dakianik.
Ara Errodrigo'txo
gainbera Aloña'tik.
Artxek erakutsiko
neronen partetik
nondik igo zindezken
Zerura zuzenik.

BERRIONA

Irudia agertu-ta urrengo igande-goizean Errodrigo Oñati'ra jetxi zan berrionarekin. Jetxi zanean, oñatiarrak errogatibak egiten ari ziran euri-eske.

Ergiña'ko «Andra-Mari» zuriarentzat izan oi ziran ordun oñatiarren letariak (prozezioak), alako legortean aldietan.

Ergiña'ko ermita ori Oñati'tik Mondrago'era bitartean dezu.

Giza-lerro beltza entzun urrutian
Ergiña'ra-bidez arrenga bizian,
eguzki-galdatan auts biur-zorian,
oiartzuna arrotuz landa kizkalian:

—Andre-Mari! Abe-Mari!
biotz minduaren sari...
Iguzu larre beartuentzat
zure errukiaren euri.
Legorte ontatik libra gaitzatu,
Ergiña'ko Andra-Mari!

Goldio lizuna erreka agorretan.
Belar txutik ere ez alor txigorretan.

Miñez dantzu lurak doan letaria,
atzetik luzatuz otoitz-durundia.

Ta, auts eta izerditan, an darrai aurrera
Oñati-erritik erromes-illera
basamortu-zear lugorri-barrena.
Gurutzadunakin apaizak aurrena;
bi lerro beltzetan gizonak urrena;
emakumezkoak, saillean, azkena.



—Ergiña'ko Andra-Mari,
gure Andra-Mari zuri.
Egarri dauden soroentzako
euri naroa ixuri.
Pekatarion deiari entzun,
Ergiña'ko Andra-Mari!

Danen aurrez-aurre, tontor batera igo
ta ara non asi dan oska Errodrigo!

—Baña, oñatiarrak,
zertan zabilzate
Ergiñara-bidean
euriaren eske?
Andra-Mari berri bat
ikustera atozte!
Letariz ibiltzea
alperrik dezute,
Ari dagon lekuan
aterpe eman arte.

Jesus aurra besoan
ta aoan parreirri,
Zeru ber-bera dala
begira dirudi.
Gezaltzan-gora dago.
Atozte ta ikusi
—«Eidazu ermita bat,
(esaten danori)
alkarrenak izango
gera-ta zu ta ni».

Igande-goiz aren egurats zolia!
Somatzen-edo da aize ozkirria,
xuxpertuz zimelik zegoan bizia...
Somatzen arran-ots ebanjelaria...!

Biamonerako euria oparo
ari zun, asetuz biotz eta soro...
Estalpea jaso bai-zuten orduko!
Euriakin zenbat grazi arrezkero!

Arbidean-gora norabait erromes
zetorren, alaber, Euskalerra, nekez...
Aren arran-otsak, samiñaren miñez,
albo-errietan oiartzunik ere ez!...

Errodrigo'n deiak bidera irten dio...
Berrion obeak mun al lezakio?

—Nora zoaz erromes
orron, Euskalerra?
Ona Aizkorri'ko maldan
zure Andra Mari!
Pauso galdu oriek
onatu ta ikusi
—«Eidazu ermita bat,
(esaten danori)
Ama-Seme izango
gera-ta zu ta ni».

Bidaztia, arretaz, pozez zorabio,
belaunikaturik adi dakogio...

Lau-aizetaratz artzai-aldarria,
lau probintzitarra an doa irrintzia;
ta arekin arran-ots ebanjelaria...
Esanera dago Euskal-Edestia!



EURIA

Arantzazu'ko Amak egindako mirarietan bi ezagunenak, oetxek ditu erri-xumeak: euria ta pakea. Lenengoak bai-dira, eta geroko beste askoren ezau-garriak.

Emen euria'rena, bi urte luzeko legorte ondoren.

Urrun-abotsak:

Zeru-deiaren adira
eldu kristauak Mendira,
zeru ta lurra alkar ikutzen
agiri diran tokira.
Antxe bai-dago guzion Ama
gu noiz elduko begira.

Zar eta andreak ez omen ziran
araño igotzeko beste.
Gazte-talde bat bildu zan bertan,
(ez errizain ta apaiz gabe)
Errodrigo'kin malkarrak-zear
mendira jotzeko trebe.
Jakin bear zan ziñ-emandako
Miraria egi ote...

«Mendi-gañean izar eder bat
argi egiten, bakarrik;
eta eztakit bertan jaio den
ala datorren zerutik».
Iru Errege beste bein legez,
izarñoaren atzetik
abia ziran, aurtxoarekin
Ama ikusteagatik.

Oñatiarrak ikusi zuten
gizataldea abiatzen,

Aloñan-gora urrutiratzen,
an lepoan izkututzen.
Noiz itzuliko zai geldi ziran...
...Bañan itzuli baño len,
lur egarriak txukatu ala
euri mardula ariko zen.

Aloñaz-aruntz, Gezaltza'n-gora
aurrez-aurre'tik bidari,
mendigañeko izar ederra
zijoakien gidari.
Bi ordu luze jarrai zioten
izar mirarizkoari...
Ta ara alakoan nun takatzen dan:
arantz baten gain ñirñari!

Euskal-egunen Eguberria!
Zeru ber-bera guregan!
Jesus aurtxo besoan eta
txiliña alboan dilindan,
kristau begien zoragarritzat
antxen Ama Arantza-gain!
seme berrien Epifani'ko
ikusaria artzeko zain...

Bertaratzean begiz-jo orduko,
belaunikatuz bat-batez,
ezin aspertu ziran iñola
Birjiñari begiratzet.
Ezin lasaitu biotz-pilpira
itz-eten bat edo bestez...
Ordurarteko euskal-fedea
mintza zan aien ezpañez:

Oñatiarrak:

—Andra-Mari! Ama Mari!
amesten genuen sari.
Gaspar ta Meltxor ta Baltaxarrek,
beren errien opari,



eman zizuten urre ta mirra
pobreok ezin eskeñi...

...Parreirriz Amak begiratze zun
aurreko gizataldea.

Parreirriz ere aien urrengo
errezka etengabea,
aien urrengo etorriko zan
erromeri-sail luzea...,
begiak ikus-ala guzian
zeturten euskal-Fedea.

Andre-Marik:

—Emen espero zindudan,
al dakit neuk noiztandikan,
Kantauri orren negargarria
poztu ta arindu nairikan...
Zure zoria, zure aundia
dago Arantz onen biran!

Oñatiarrak:

—Danok gaituzu, bai, pobre;
baño danok, danok gazte.
Zuk itz-erdi bat mintza orduko,
bai pozik beteko ere...
Zer nai diguzu? Agindu, Ama!
Zure esanerako gaude!

Andre-Marik:

—Ermitatxo bat eidazu,
izan dezadan ostatu,
izan dezadan, izan dezazun,
izan dezagun ostatu.
Ni ta Jesusek ta Euskalerrriak
irurok bat bear degu.

Itxumustuan antola zuten
ordukoz estapeltxoa.
Aga ta arbastaz josia zanez

e'tzan ez ainbestekoa.

Len-maitasunak jaso zunetik,
ortitxek maitatzekoa.
Euskal-federik ba'zan, egingo
zuten bai obeagoa!

Berri eraman nairik, kalera
abitu ziran lenballen.
Laño-mordoak alkarren-gainka
aurea artu zieten.
Goi-errukia tanto loditan
asi zan, aiek baño len,
Euskalerriko soro ta animak
bizitz berrira xuxperten...

Mendirakoan izarra eta
kalerakoan euria,
txango-taldeak beti izan zuen
aurretik albistaria.
Izarrak izar agertu zien
nun zegoan Miraria.
Euriak euri asetu zien
lur ta animen egarria.

Oñatiarrak ikusi zuten
txango-taldea izkututzen.
Gezaltzan-gora zer gertatzen zan
arrezkerok e'tzekiten.
Ta ala, zai ta zai noiz itzuliko
zeudela..., aiek baño len
Mirariaren albiste emanaz
euri mardula ari zuen.



PAKEA

(BIDE URRATZEN)

Gipuzkoa'ko Ama Zaindaritzat Arantzazu'koa aukeratu eta Erroma'ra baietz-eske idatzi zanean, Aldundia'k (Diputazioak) zin-eman:

«...Arantzazu'ko Amari zor diogu, ura agertutakoan gure erriari etorri zitzaion pakea eta lege-zarren sendokuntza».

Kanta onek Oñati-barruko gora-berak aitatzten dizkizu geienbat, baño, jauntxopetik askatutako beste uri askoren jabetasunari gorasarre bat izan nai dizu.

Urrun-abotsak:

Zeru-deiaren adira
eldu kristauak Mendira,
zeru ta lurra alkar ikutzen
agiri diran tokira.
Antxe bai-dago guzion Ama
gu noiz elduko begira.

Oñatiarrak ikusten zuten
erromesak ugaritzen,
Arantzazura promesadunak
gero ta usuagotzen.
Negu ta udara atertu-gabe
noiznai nonaitik zetozen....
Bai berak ere joango... Baña
Jaunkontek nekez uzten!

Jaunkontearen asmo maltzurra:
kalera Imajiña jetxi
ta an Oñatiko bere jaurgoan
kapillatxo bat autetsi.
Besteren urak bere errotara

nai ark orain ere nasi...
Oñatiarrak Arantzazu'ra
argatik ezin ikusi!

Erromesentzat geiegi zala
arañoko ibillia:
jauntxokeria orraztutzeko
asmatu zun aitzakia.
Oñatiarrak igerri zuten
bein-berriz azpikeria.
Baita beñola, zer egin dute?
asma bertan Kofradia.

Kofraditarren asmoa, aitzitik:
urra bidea arañoxe.
Kondeagandik libra-bidean
saia erriaren alde.
Ez atsedetik, Aloña bertan
Eliza bat jaso arte.
Baldin arloa zertutzen ba'zan,
erria izango zan jabe!

Jaunmendi-goian jarria zeukan
Kondeak urkamendia,
aren bildurraz kukiltze-arren
mendekoen kutizia.
Ala ta ere ezin ito, orde,
samindunen intziria:
Ama on batek Arantzazutik
entzuten zuan guzia!

Gure oroitz Ama dago,
errukitan urtzeraño...
Ondo zaugu maiteago
katigu gauzkana baño!

Murgiatarrak, morrontza artatik
Oñati askatze-arren,
Garibai eta Gebaren kontra



gudu izuan zetozen.
Zein bietatik garaille irtengo,
e'tzan erreza asmatzen.
Birjiñak berak «Jainko-epaia»
erri-alde eman zuen!

Mondragoi'rekin alkar arturik
kofradikoak batean
bide urratzen ekin zioten
anaiki auzolanean.
Arkaitzak autsi, irauli, jarri...
berebiziko lanean.
E'tzan nekerik barkatu bear
askatasun-arbidean!

Arantzazu urrun egiten dala?
Zerua are urrunago.
Zerua ez da alperrentzako,
irabazten dunantzako.
Konde izan-arren, ez uste iñork
ura zaiola jetxiko.
Zerura bide egiten duna,
ez da an besterik sartuko!

Birjiñak berak ager zanean
garbi zigun adirazi:
ager zaneko Arantza-biran
nai ginduala ikusi.
Lan-egintzaren arantz-arte
bear genuela bizi,
ta arantz-arte ermitagintzaz
zeru ederra merezi.

Erdi-aro laño dago,
ez eguzki, ez izarño...
Jo argiñak, jo gorago,
lañopea astintzeraño!

Utzi ezpatak, artu eskutan
langillearen atxurra.
Goiz berriari opa deiogun
Murgiatarren agurra,
Murgiatarren agurrarekin
danon eskerron xamurra.
Oraiñarteko kateak austen,
urra, langilleak, urra!

Iñigo Velez Gebara'koa,
erbeste-otso maltzurra:
iretzat mami goxoa eta
pobrearentzat exurra?
Orain, orratik, galdu bear dek
ire aginte makurra.
Aregandiko libra-bidean
urra, langilleak, urra!

Animadunak, baserridunak,
zaldunak gaituk gu ere.
Zerutarako jaiok eta
ez egoteko ire mende.
Euskalerriko odolgarbiko
aitunen seme, eu ez beste.
Aurki gaituk bai, ik nai ez-ta re,
gere buruaren jabe!

Erdi-aro laño dago,
ez eguzki, ez izarño...
Beti ere laño iraungo
Jauntxorik degun arteño!

*Eriotzari gauza bategaz
oi natxako ni kontentu:
aberatsari diruakatik
ez oi diola barkatu.
Aberats orrek diruak ditu,
pobriak umildadia.
Umildadiak idekiten dau
zeru altuan atia.*



Kristau-bizitzak arantzak ditu;
arantzak dakar Lorea...
Pobretasunak idekiten dau
zeru altuan atea.
Ez da erreza, nasai bizi dan
aberats bat an sartzea.
«Superbo gaiztoz beterik dago
inpernuko su-leizea».

*Kristiñau on bat, ilten danian,
egiten dabe bi parte
gorputza lurrez estaldu eta
arima paradisure
Paradisuko atian dago
bakarrik eta tristerik.
Redentoriak urteten dautso
piedadiez beterik:
—Kristiñau ona, zuk ze dakatzu
beste munduko gauzarik?
—Umildadia, Karidadia,
ez daukot, Jauna, besterik.
Umildadia, Karidadia,
pobriak ez dau besterik.
—Orrexek biok dakarrezanak
ez dau biar be besterik.
Ia, aingeruak, erduze ona,
artu ezue eskurik,
eruen ezue paradisure
Birjiña Amaren ondotik,
Birjiña Amaren ondotik eta
santu guzien albotik.*

Kristau-bizitzak arantzak ditu,
arantzak dakar Lorea...
Arantzazura eldu nai dunak
ez bildurretsi nekea.
Pobrea danak ez du faltako
lanerako adorea.
Adore orrek idekiten dau
zeru altuan atea.

*Arri landuaz egña dago
zeru altura bidea,
arri landuaz bidea, baña
zillar-dindillaz atea,
zillar-dindillaz atea eta
urregorizko giltzea.
Lanak zillarra balio ba'du,
bidegintz onek urrea.*

«Mundu onetan gura dabenak
zeruko lorak ikusi,
Arantzazuko mendian-gora
bear dau bidea ikasi».
Norgere izerdiz bidea urratzen
ikasi bear lenbizi,
mundu onetan gura degunok
zeru ederra merezi.

Erdi-aro laño dago,
ez eguzki, ez izarño...
Beti ere laño iraungo
bidea urra dezaguño!

Kristau-animak gora du lege;
errekatoak gainbera...
Euskaldun prankok igo bear du
galtzara ontan aurrera,
Birjiña Amari eskerrak eman
ta berriak eskatzera!
Grazia pranko bai jetxiko re
errekatoaz batera!

Santatria-aitza, Artia-gaña,
Urrexola, Katabera:
lau aldetatik lau probintziak
datoz, bidazti, onera,
Jentil-aroko gandu-artetik
Arantzazu-gallurrera,
mundu-aurrean Iñigo'rekin
euskal-Garaia irixtera!



Prantzi-aldeko eskualdun berak
 urteroko etorreraz,
 bi milla iñoiz, eundaka askotan,
 elduko dira jaierez,
 Prantzi t'Españi'ren gudaगतिक
 ajolik gabe frontieraz...
 Ez aztu ere Aloña'koak
 an dun «Ainho'ko kaperaz».

Ez da bazterrik Euskalerrian
 ez dunik onako berri.
 Nonaitik datoz euskal-semeak
 Aloñaren gerriz-gerri.
 Zazpi erkiok anai geranentz
 ez galde beste ezerrri:
 Arantzazu'ko bideak daki
 Erri bat dala Euskalerrri!

Arantzazu argiz dago,
 ez gandu eta ez laño...
 Goazen danok, igo ta igo,
 Amaren magaleraño!

Urrun-abotsak:

Zeru-deiaren adira
 eldu kristauak Mendira,
 Pakera sortu ginduan Ama-
 ren Aldare Nagusira.
 Gizaldi danen euskal-bideak
 antxen alkartzan bai-dira!

Jauntxorik ere ez da izango
 ara elduko ez danik,
 urre-jantzi ta zaldi-gurdiak
 utzita, noski, lendanik.
 Jende xearen kide bereko
 burua aitortuz aurrenik, oin gorrietan igoko dira
 ejenplu ona emanik!

Arantzazura arribideak
 zabala bear, zabala.
 Txiro ta aberats, goiko ta beko,
 kabi ditzan eldu-ala.
 Zabalagoa izango da, bai,
 Birjiña Amaren magala,
 damuz datozen pekatariak
 artzeko seme bezala!

Butron, Muxika, Loiola, Aiala,
 Abendaño... eta abar,
 emen izango ditugu gero
 diran anbat aundikitar.
 Ama beraren seme berdiñak
 an danak aitortu bear!
 Erria an aundi sentitzen da ta
 Jauntxoa, ez txiki, erritar!

Gure oroitz Ama dago
 betidanik betidaño...
 Danok zaugu maiteago
 arraitxoak ura baño!

Geroko baten Gebara bera,
 gaizki egiñaren damu,
 alkar-maitezko bide-urraketan
 laguntzen izango degu.
 Datorrela bai. An Arantzazu'n
 danok daukagu ostatu,
 danon Amaren begirapean
 alkar dezagun maitatu!

Duna dunakin guziok anai:
 ala bedi gizarte.
 Ez goikoz-bera ta azpikoz-gora
 irauli gizalegea.
 Ez ken iñori eskubiderik.
 Dunak dezala berea.



Pobre-aitzakiz ez euskaldunoi
leñargia uka, orde!

Iñigo zaldun Loiola ere,
euskal-anaien legera,
etorriko da, erriz-gañeko
aundi-ustea kentzera,
gau-bijilitan erriagandik
santu-indariak artzera...
Ondo biotzez maiteko du, bai,
Sorterria andik aurrera!

*Euskal-gizaldiak,
paketu-ondoren:*

Zeru-deiaren adira
eldu gerade Mendira,
gizaldi danen euskal-bideak
gurentzen diran Erdira,
Pakera sortu ginduan Ama-
ren Aldare Nagusira!

«Ermitatxo bat eidazu eta
nerea izango zera zu».
Zure eskaria, zure eskeña
txit gogoan dakarkigu.
Ez Ganboarrik, ez Oñaztarrik,
Zugan danok BAT gaituzu!
Anai-arteko ermitagintzan,
Ama, lagun egiguzu!

ERMITAGINTZA edo Amaren esanera euskal-gizaldiak

I — Itzaintzan Andra-Mari

Aida txuri! Aida gorri!
—itzaintzan Andra-Mari.
Bera dabil karriogan,
bera bi bei ta gurdi.
Ermitatxogintzarako
tella, ol eta guzi,
Aida txuri! Aida gorri!
itzaintzan Andra-Mari.

Oñati'ko parrokia begiz-jo zan lenengo
Irudi agertuari estalpe emateko.
Parrez ago, Kondetxoa, asmo ortan arroxko.
Parre ori, Kondetxoa, aurki zaik itzaliko!

Aida txuri! Aida gorri!
—itzaintzan Andra-Mari.
Kondeak pillatutako
tella, ol eta guzi
Oñatiatik gaberdiz
itzaintzan Andra-Mari,
Aida txuri! Aida gorri!
Arantzazura itzuli...

Urriagain'go muñoa, bigarren aldia auxe,
auta zuten pillatzeko tella, ol eta abe.
Kondetxo orrek parre dagik, parre berrero ere?
Biar jakingo diagu parre ori noiz arte!

Aida txuri! Aida gorri!
—itzaintzan Andra-Mari.
Egunez pillatu-ala



tella, ol eta guzi
 Urtiagain'etik ere
 itzaintzan Andra-Mari,
 Aida txuri! Aida gorri!
 Arantzazura itzuli...

Goratxoago, Gezaltzan pentsatu zan urrena
 irugarren probaldia, irugarrena azkena.
 Andik ere igeste ba'zan argiz pilla zutena,
 garbi zegon nun bear zan ermita asi urrena.

Aida txuri! Aida gorri!
 —itzaintzan Andra-Mari.
 Irugarren aldiz ere
 tella, ol eta guzi
 Gezaltza'tik bein-berrero
 itzaintzan Andra-Mari,
 Aida txuri! Aida gorri!
 Arantzazura itzuli...

Arrezkeroz...

Aida txuri! Aida gorri!
 —Birjiñaren antzera,
 euskal-gizaldiak ere
 eliza egitera.
 Lau aldiz erre eliza;
 lau aldiz jaso, ostera.
 Aida txuri! Aida gorri!
 —Ama- semeak batera!

II — Zeruak nun nai dun, antxe!

Mendi anaien gañetik dago
 Aizkorri, guzien buru.
 Lau probintzitan zerra luzeak
 erroak ezartzen ditu.
 Gutxik zekiten aren altzoan

bazala antziña Arantzazu.
 Gaurregun, Ama an degunetik,
 danok bedekintzen degu.

Aizkorri-goitik amildutako
 arkaitzen azken-arrua.
 —Ara Zabalaitz, Urbian bakar,
 biderdian gelditua...—
 Arrano, bele, putre ta basa-
 piztien bizilekua...
 Eliza an jaso nai zun Erriak
 bear zun, bazun azkua.

Arantzazu'ko eskualdea,
 Aizkorri'ren biotz-muña,
 lau probintzien beginini gaur,
 erroitz zakarrena antziña.
 Arritzeko zan an takatzea,
 goiz-ozkorritan, Birjiña.
 Arritzekoa araxe deitzen
 ginduan zeru-txiliña.

Antxe eliza jaso bear zan,
 amildegi artan kako,
 erdi aidean, erdi zintzilik,
 aitz zankar batean zalko.
 Kosta bear zun lantegi ura
 neke ta izerdi pranko,
 itz-emandako Elizagintza
 amaituta ikus orduko!

Danak zekiten uraxe zala
 Amaren borondatea.
 E'tzan besterik bear, lanera
 jartzeko euskal-jendea.
 Batak besoak eskeintzen zitun,
 besteak idi-parea...
 Arkaitz gellenak zaillak ba'ziran,
 zaillago euskal-fedea!



Erraztasuna utzita aldebat,
 Goiari gauzkion adi.
 Ez guk, Zeruak nun nai dun... antxe!
 gure egitekoa bedi.
 Euskal-Fedeak Eliz ontantxe
 izango du bere irudi,
 aize gaiztoak botako ez edun
 arkaitz gogorrean zuti!

III — Lenengo ermita egin zanetik... Seroreak, pralleak, prantziskotarrak

Zur utsez lenik eratutako
 ermitatxoaren urren,
 beste bat arriz, aundiagoa,
 bereala antola zuten.
 Uraxen ere, buka orduko,
 txiki, oso txiki irizten.
 Zetozen anbat erromesentzat
 an tellatuperik e'tzen.

Juana Arriaren andre-goituak
 presta zun bere burua
 negu ta udara berak zaintzeko
 eliza ta ostatua.
 Aren inguru berealaxe
 bil zan serore-saldoa,
 Irugarrengo Ordenapean
 artzeko ango kontua.

Obeki nunbait iruditu zan
 bakartearen begira,
 gizonezkoen komentu on bat
 elizaren jirabiran.
 Jakin orduko, iru Ordena,
 bat bestearen segiran,

iñoiz aserrez ekiteraño
 artaz jauntzen saia ziran.

San Prantzisko'ren seme pobreak,
 paketzalle, erri-zaleak,
 Sortzez-Garbi'ko Birjiña Amaren
 aldezkalari trebeak...
 Prantziskotarrak geldi zitzaizkun
 azkenik ango jabeak!
 E'tziran noski makalak izan
 arrezkerozko urteak!

IV — 1514. Prantziskotarrak Arantzazura Euskalerrria mundura

Ordutik dator, askirik gabe,
 aunditzen eta aunditzen
 Arantzazuko azi-bearra.
 Mugarik nunbait e'tzuen.
 Iru ostatu... Larogei pralle!
 Alare gutxi erizten.
 Zetozen aña erromesentzat
 are geiago bear zen.

Ordutik datoz, geienak beintzat,
 gure gaurko parrokiak.
 Arterañoan olazko ziran,
 olazko xaxtar-txikiak.
 Ta aldiz, Birjiña ager zanetik,
 zabalduz bide berria,
 itxasoz aruntz t'onuntz burua
 jaso zun Euskalerrriak!

Birjiña agertu ta bere artan
 sortu zan pake-aroa,
 pakearekin aurrerapena
 ta arago'rako gogoa:



esi estuak autsita urrun
norabait abitzekoa...
Aintza-bidetzat, ta ez obitzat,
an zegon zai itxasoa!

Kantauri-itxaso zabal-neurtea,
euskal-miñen ataria: zure erraietan zer dezu itota:
ugarteren bat? uria?
Kanpai-ots miña entzuten degu
deika-deika, urrutia...
Elkano, Urdaneta, Legazpi:
goazkion billa! abia!

«Boga, boga, mariñela:
joan bear degu urrutira...!»
Amabosgarren gizaldiz-ona,
abots sendo orren deira,
zenbat gizandi, batzuk betiko,
urruntzen ikusi dira!
Zenbat lei aundi Indietara!
Zenbat aintza Sorterrira!

Nondik-nora jun, bide erakusten
itxas-izar ziurrena
an legorreko Birjiña zuten,
Arantzazu'ko oroimena.
Ekaitz-alditan lagun bakarra,
noiznai orratz zuzenena...
Gero itzuleran Eliz uraxe
iker bear zan aurrena!

V — Euskal-Eliza Nagusia

An zegon larden eliz bikaña,
sinismenaren irudi,
ekaitz zakarrak autsiko e'tzun
arkaitz zallenean zuti!

Besoak ditun fedearentzat
eziñezkorik ba'ledi,
Arantzazu'ko euskal-fedeak
ez du sinisten oraindi!

Amerika'tik zetozen erruz
ontziz limosna ugariak.
Nunaitik, aldiz, eri, elbarri
ta gudan libra-berriak.
Zirgillo eta esku-kateak
naizta beste agiriak
eliz-barruko ormetan zintzil
uzten zituzten guziak.

Ango makulu ta argiontzia!
Ango zillar ta urreteri
ikusten zuan kristau-begiak
sinismenaren geigarri!
An ezagun zan Birjiña Amak
zenbait on, zenbat mirari
egin oi zitun semeen-alde
eskatu-ala Berari!

Torrea larden, erroak tinko,
arkaitz bizia oñarri,
Arantzazu'ko ola berriak
e'tzion bildur ezzerri.
Ipar naiz ego, aize-erauntsiak
nai zutenean etorri;
dardarrik ere eragin ezetz
gure fede-zuntoiari!

VI — Lenengo errealdia ta berriro ermitagintza

Bestelakoak gertatzen, baña,
Jaungoikoaren asmoak.
Tximista batez apurtzen daki



gizon-amets arroxkoak;
oker-gunetik zuzentzen ere
bide obero pausoak...
Lan-egñaren poz-arrandiak
baditu bere arrixkoak.

Zorigaitzean —zion biotzak,
fedea: —zorionean.
Komentu dana suak erreta
argitu zan goiz batean.
Ordu gutxitan errauts biurtu
Gabon-gau bigarreanean,
ainbeste nekez euskal-fedea
jaso zuna anbat urtean!

Arantzazuko bakartadea
orra biurtu lenera:
mendi izoztuan otso goseak
urubi luze-minbera...
Dulun-dulunka aidean berriz
betiko eskari bera:
«Ermitaxoa eiazu eta
nerea izango zera».

«Etzauntza artan eliza uztea
gauza beltz-penagarria»...
Birjiña Amaren deiera berriz
zuti zan Euskalerrria.
Ez atsedetik eregi arte
aundiago bat berria.
Zure esanera ona bein-berriz
Ermitagintzan Erria!

Aida txuri! Aida gorri!
—Birjiñaren antzera,
euskal-gizaldiak ere
goazen berriz lanera,
inpernuak erre-ala
Eliza berriztera...

Aida txuri! Aida gorri!
—Ama-semeak batera!

«Guadalupe ta Montserrat aña
zan ura euskaldunentzat.
Zenbat on andik, zeuk bai-dakizu,
esan bearrik ez daukat».
Valladolid'tik, Euskalerritik,
andik-emendik erabat,
karta-pilloa zijoakion
Iñigo'ri Erroma'rat.

«Egiñaletan saia gaitezen
Elizagintza orretan.
Zenbat on andik jasoa naizen
ondo dadukat gomutan».
Egiñaletan abitu ziran
euskotar guziak bertan
San Iñazio aurrena zala
«itzetan baño obretan».

Amairugarren urte orduko,
len baño bikañagoa,
amiltegian-gora zerurantz
jaso zan eliz bapoa.
Indietatik limosnak eta
Roma'tik Loiola'koa,
euskaldun danak an jarri zuten
besoa edo gogo!

Arantzazu'ko etxegiteak
egonik e'tzun ezagun.
Obra gabeko tarterik ozta
edestiak Arantzazu'n.
Bati azkena eman orduko,
aurretik beste eginkizun...
Amaren naia zertan kunplitu
Euskalerrriak an bazun!



Bitan ondoa jan lurjausiak,
bitan jausi ormagintza.
Lautan erretzen ikusiko zan
Aloña'ko lekaidetza.
—Birjiña berak erretze ez ote?
jendeak bazun zalantza...—
Erre zedilla; ala aziko
euskaldun-ermitagintza!

Erre zedilla... E'tzan erreko
euskaldun-elizgitea!
Oroitzen zuten Horeb-mendiko
MOise'ren sasiotea:
su zeriola erretzen eta
ezin kizkaldu, ordea...
Ala —zioten edeslariak—
zala orduko fedea.

Bein ta berrizko etxerretzeok,
nunaitik ere begira,
Sinismenaren auspo ez-ezik
gurenda aundienak dira.
Mendiz-mendiko suak bai'liran,
zuzi orien argira
Arantzazuko kondaira aundiak
ia nolako dirdira!...

Ez nau arritzen, lurraren gerri,
Elkano'ren «Vitoria»k
Miretsi emen munduak, zenbat
dezaken Euskalerrriak...
Abagunerik dan ala bider,
adore au dun Erriak
emango ditu o bai! Xabier
ta Zumarraga berriak.

VII — Erriarena ala pralleena? Oñatiarren urteroko oitura bat

«Ez da Arantzazu —zion jendeak—,
ez da lenik pralleena;
erriarena lendanik eta
erri-izenean aiena».
Andra-Maritan eska oi zuten:
«Betoz giltz oiek gugana,
Erriak bai-du aurrenik emen
eskubiderik geiena».

Andra-Maritan urterik-urte
pralletako jatetxean
kofradikoak bazkaltzen zuten
erriaren izenean.
Orretarako komentu-giltzak
eskatu ara sartzean,
Arantzazuko etxe-nausiak
zirala agiri naiean.

Prozezioan etorri oi zan
bide-beteen jendea.
Urte guziko meza aundiena
ta urrengo banketea.
Ezker-eskuan lizar-arbazta,
gora asaldatuz bestea,
Konde ta kondekumeen kontra
mintza oi zan alkatea:

—«Aitunen seme kofraditarrak:
oroitu gaurko eguna,
Kondeagandik libra giñala
emen ospatzen deguna.
Erri-kontrako sasi-jauntxorik
ez bedi azaldu ona!
Bazkari ontan ospa dezala
Oñati'k askatasuna».



Etixerakoan, egin-ezkeru,
urtean-beingo otorontza,
Jaun alkateak Guardianari:
—«Artu Asistarrok giltza.
Zuen eskutan ipintzen degu
etxe onen zaindaritza».
...Ta ala, zaingoan prantziskotarrak
erriak nai-ta dabilta.

VIII — Bigarren errealdia ezkeru

Pozik dakusgu, bestela ezin-da,
ixpilluan arpegia.
Euska-fedeak poz zun begira
bere indarren agiria:
arkaitzan-gora an zegon lerdin
eliz-komentu aundia.
Zentzunak andik jakin zezaten
zenbat zan Euskalerrria!

Bestelakoak gertatzen, baña,
ez dakigu nolakoak,
gizon-egintza purrukatzean
Jaungoikoaren asmoak.
Euskal-arnasa naikorik-ezak
indartze zun, arago'ak.
Arrixku batek galdu zezaken:
egonak, *gaurkoz-naikoa* k!

Beinberriz emen aita dezagun
bigarren errealdia,
fedea are ta geitzeko,
zeru-onginaiak bidalia.
Oraingo ontan erreta amil zan
eliz-komentu guzia...
Ene! Orduko mendarte ixilla!
Bakarte erdiragarria!

Il eta bizi, millaka animak,
danak arren baño arren,
egundokorik antzi izuena
ai-ene'ka aidatu zuten:
—«Gure leiaren Irudi deuna
ez utzi orrela galtzen...
Elizarekin euskal-izena
jaso bein-berriz lenballen!».

Erre zanetik biamon bertan
ango nunaitar langille!
Ordurarte e'tzan ikus alako
federik, ez geroz ere...
Irureun gizon bai eguneko;
eta berreun idipare...
«Suak indarrak ba'ditu ere,
sinismenak erredoble!».

Aida txuri! Aida gorri!
—Birjiñaren antzera,
euskal-gizaldiak ere
goazen berriz lanera,
inpernuak erre-ala
Eliza berriztera...
Aida txuri! Aida gorri!
—Ama semeak batera!

Bi illabeteko emana zegon
elizari tellatua,
orobat aldiz jasoa ere
pralleentzat komentua.
Orra berrero euskal-fedea
arri eder biurtua!
Inpernu-suak nundik itzungi
euskaldunaren azkua?!

Ordurarteko danetan ura
aundi eta zabalena,



Jainkoak nai-ta bi mendez-gora
zutik iraungo zuena.
Gizaldi fedetsuenen berri
orma aik jakingo zutena!
Oi ba'geneki, aiek adinbat,
gure zarren sinismena!

IX — Euskal-Garaipena

Bi gizaldion tarte eder oni
Urrezko Aldi deritza.
Bai zertu ere emen fedeak
zin-emandako BAIETZA!
Penitentzizko gau-bijiliak
oi nik kanta al ba'nitza!
Noraño izan zan gure asaben
Kristo'ganako eskeintza!

Gertaira zarren jakin-paperak
kizkaldu ziran, lurpetu...
Aiton-amonen au-altxorretan
kanta-zarrak iraun digu.
Euskal-anima puxkak bai'liran
jaso, gorde, bedeinkatu...
Aldi artako gure aundia
oien bitartez dakigu!

Itxasoz doan ontzi-atzetik
kaio urrun-zalea lez,
Arantzazu'ko izen goitua,
aboz-abo kanta-zarrez,
euskaldunik bat zan lekuraño
zijoan urez ta lurrez...
Indi-aldetan euskaldun onik
kofradiko e'tzanik ez!

Euskal-egintzen iturbegia,
Arantzazu'ko txokoa.
Ameriketan, Filipinetan
euskaldunen gogokoa.
Izen aretxen kofradipean
zijoan euskal-txangoa
mundu guzira azalduz gure
Sukaldearen goxoa!

Edestiaren gallurrenera
or eldu euskal-uztaia.
Amerikatik, Indietatik,
zerua jotzen ia-ia,
Mendi garai bat ikustatzen zan
noranai: euskal-Garaia!
Elkanotarren, Loiolatarren
Arantzazu'ko dirdaia...!

Zein ederra dan gallurrenean
arranoaren egalda!
Ontantxe, ementxe iraun zagula.
Ederragorik bai al da?
Arantzazuko Mendi Santuon
ar'tzagun Eguzki-galda!
Zein ederra dan Tabor ontako
gure Erriaren antzalda!

X — Ereserkia

Orra eliza jaso,
amaika aldiz eraso,
zenbat leien arazoa!
Biotz bakoitzan begira zazu
ermitatxo eroso.
Begira, Ama gozoa!
zure esanera jaso
euskal-Kondaira osoa!



Gizaldi danen begiak,
zureganako geziak,
zuregan daude josiak!
Arantz orretan kakotzen dira,
zurearekin nasiak,
gure gogo ta biziak,
yoran eta kutiziak,
etxe ta erri guziak!

—«Arantzan Zu?» —«Ni eta zu
biok emen bear degu.
Ermitatxoa eidazu»,
—agertutzean zenigun, Ama,
erantzun eta eskatu.
Orra Eliza osatu,
zure ta gure ostatu!
Ama, pozik al zaitugu??

Ille autem dicebat de templo Corporis sui (Jn. 2, 21)
Baño, oraindik ere, euskal-fedeak, Iñigo'ri esandako itzen
oiartzuna entzuten du, Amaren besoetako Jesus'en aotik:

Jesusek:

—Euskal-fedeak, euskal-Elizak
aundiagoa bear du.
Ermitagintza gurenagoaz
gurea izango zera zu.
Ama-Semeon guruzbidean
neke-lagun nai zaitugu.
Elizagintza gorengo ori
nere GORPUZGINTZA dezu.

BIGARREN ALDIA

In aedificationem Corporis Christi (Eph, 4, 21)

Arrizko ermitagintza osatu ondoren (lenengo aldia),
orain (bigarren ontan) beste ermitagintza aundiago bat billatzen du
eta irixten Euskal-Fedeak, Amaren eskari-eskeña zertzeko:
Kristo'ren Gorpuzgintza.



KALBARIO ALBERNI ARANTZAZU

Kalbario-mendia kristau guzientzat deguna, orixe
da Alberni, bere mallan, prantziskotarrentzat, eta
orobat izan zan Arantzazu euskaldunontzat.
Arantzazu, euskal-Kalbario!

*Iñork nere atzetik etorri nai ba'du, bere burua ukatu ta bere gurutzea leporatu
beza, eta jarrai dezaidala. (Mt. 16, 24)*

—I—

KALBARIO'ko mendia,
kristau-oñazeen oindia.
Andik Zerura doazen miñak
ziurra dute saria.
Kalbarioko mendia,
Jerusalen'en jeikia.
Jainko-Gizonak bere Opariz
an salba zun gizadia.

Jesusek gurutzetik:

—Zeruko Aita: orra nik
Eriotza azkendu nerez.
Tori nere Oparia
giza-obenaren ordañez.
Ez naiz bakarrik. Atzetik
elduko dira, gurutzez,
beste amaika, Nerekin
neke-lagun izan naiez.

—II—

Italin dezu ALBERNI,
bigarren Golgota txiki.
Prantziskotarrak andik dakite
nola jarraitu Jesusi.

Begira San Prantziskori:
gorputz ta animan bost zauri...
Gurutziltzatuaren miñetan,
Jesus berbera dirudi.

*San Prantzisko zaurituaren
eskaria:*

—Indazu, Jauna, arren neril:
zure Pasio-miñak ni-baitan
senti ditzadala, senti...!

—III—

Euskalerrin ARANTZAZU,
gure Kalbario santu.
Irugarrenez, Eros Mendia
euskaldunok auxe degu.
«Nere euskal-seme on askok emen
izango dute ostatu,
izango dute ostatu eta
euskal-Meza non opaldu».

*Prantziskotarren deia,
Euskalerriratzean:*

—Kristau-erri euskaldunak:
Jesusganatu nai dunak
eutsi gurutza, zamatu
ta Arantzazura abiatu...

Euskal-miñen Arantzazu!
euskal-Kalbario santu!
Ama-Semeen Pauso doneak
nun-berritu or daukagu.
Ama-Semeen guruzbideko
neke-lagun ar gaitzatu!



GURUTZ-BIDEA

Lenengo amar bertsoetan, erromeri osoaren azalpen bat laburkiro.

Gero, euskal-Fedea ikusiko dezu erromes Arantzazu'ra, penitentzizko guruzpidean-gora..., Kalbariora!

Tarteka erruz, bidean abestu oi ziran Pasio-kantak, danak erriarenak.

Guruzbidea dago
Arantzazurako.
Antxe bai-degu gure
euskal-Kalbario.
Gurutzez eta katez
ara bear da igo.
Ala zuten oitura
asabak lenago.

Arantzazura dagon
gurutzebideak
gaur baño re antziñan
zituan nekeak.
Neke-ezaugarri, baita,
nunai gurutzeak.
Nunai ermitatxoak:
«santutxo» maiteak.

Bi orduko aldapan
jendea erromes,
gurutza bizkarrean
ta kateak narres,
«kristau fidel moduan
oñutsez, dolorez...»
gaituzu oraingoan
oroitu bearrez.

Orduetik ona alde
dago urteetan;
alde aundiagoa
are oituretan.
Zarrak egin zutena
beren gorputzetan,
sinistu ere ezin gaur
norañokoa zan.

Ermitatxo banatan
iñoiz egonaldi.
Ez, atsedete-arren
uste zala ori.
Erromesak, erantziz
gerriz-gora guzi,
zigorkatu oi ziran,
odol eta zauri...

«Umilladero» bana
bide danak azken...
Gaur ere erri-sarreran
badira an-emen.
«Gurtzipizio» gaña,
aldapan zetorren
neke-erromesarentzat
Arantzazu'k zuen.

Gurtzipizio-gaña!
Arantzazu bistan...
«Aita gurutzekoa»
an ezker-ermitan.
Lur santua munkatuz
belaunika bertan,
Ni pekatari damuz
esan eta esan...

Berreun bat metro andik
elizarakoa.
Berrogein bat jetxita



buka da ibilgoa.
 Damuz bularra joaz,
 begitan malkoa,
 belaungorritan jeixten
 zizuten osoa.

Beñola, Birjiñari
 zabaldu biotza.
 Jaulkitzen dionean
 erromeri latza,
 oi erromesak artan
 nabaitzen dun poza!
 Gau-bijilia arekin
 gogoz asi leza...

Atozte begitara,
 erromes kutunak,
 ikus-ikas ditzagun
 zuen pauso deunak!
 Atozte, oroitz zarrak,
 kantazar bakunak,
 barrundatzeko aien
 anima-barrunak!

Urrun-abotsak:

Arantzazura erromes,
 guruzpideko arbidez,
 eldu gogatsu pekatariak,
 penitentziz ta oñazez,
 barkapen oro iritxi-arte
 aitortzaz eta jaunartzez.

«Agindutako promesa
 kunplitu gabe ez pasa».
 Naiz ilda ere bete bear da
 besteren bitartez itza,
 argizaritan dirua aginduz
 edota bizpairu meza.

Gizonak saille batean,
 Emakumeak bestean.
 Emakumeak «oñutsik eta
 abitu beltza soñean,
 San Prantziskoren kordoetxo bat
 gerriyan iru doblean,
 San Agustiñ'en liburutxo bat
 eskutxo biren erdian...»

*«Arantzazura egin det promes
 edo gau edo egunez,
 edo gau edo egunez eta
 oñutsetan ta dolorez».*

*«Arantzazura ninjoanian
 e'nun besterik goguan:
 nola juan ta nola etorri
 kristau fidelen moduan».*

*«Arantzazura bidea luze,
 gañera aldatz-goria;
 baña aldatzaren altuan dago
 Ama Birjiña Maria».*

*«Ama Birjiña Arantzazuko,
 askoren debota maitia.
 Aretxek asko estimatzen dau
 erromeriyen joatia».*

*«Egune zala ta egune zala
 bart idargie zanian,
 egunerako allegau nitzan
 zazpi legue bidian».*

*«Arantzazura bidea luze;
 ara orduko nekatu.
 Birjiña Ama ta bere Semea
 bidean ditut topatu».*

*«Arantzazura bidea luze;
 ara orduko illuna.
 Santa Luzian begi ederrak
 argi egiten digula...»*



Artu pekatuen damu,
gurutze bana zamatu,
Goi-errukia merezitzeko
Arantzazura abiatu.
Ama-Semeen Pauso santuak
bear ditugu jarraitu.

*«Pauso santuak kontatzen
mundu onetan lenena
Ama Birjiña ibilli izan zen,
il ezkeraz Seme ona.
Dударik gabe, egia dela
nai duzu klaridatea?
Ama Maria Agreda'koak
emanen dizu fedea».*

*«Maria'ren oiñaze aundiaz
oroitu gaitean egiaz».*

*«Zorigaitoan izan eztedin
gu jalo gñan eguna,
asi gaitean Pauso-kontatzen,
sobra da galdu deguna.
Nai ezpadegu burlarik egin
Jesus onaren pausuaz,
etsi dezagun alde batera
mundu ontako gustuaz».*

*Ama, tristeziak bethea,
Semea iltzean,
begien bistan gurutzea,
zaqoen nigarretan.
Nork ez du pairatu nahiko
Ama ikustean?
Nork ez du ere hil nahiko
Jesusekin batean?»*

Lenengo egonaldia:
Jesus ilgarri etsia.
Gugatik da-ta, lagun deiogun
eramaten Nekaldia.
Penitentziak irabazten du
Osasuna ta garazia.

*«Gure Jesus, nora zoaz
ain tristea gugatik?
Gurutzean il nai duzu
pena latzez beterik?
Damuz nago, urriki dut
zaudelakoz nigatik».*

*«Pentsa dezagun gurutze ortan
ea zergatik jarri den...
...ez ditut damu nik zuregana
egin ditudan pausoak».*

Kontu gorputz eozkorra;
karga beragan zigorra.
Gorputz-erruak eraman zuten
iltzera Seme ezilkorra.
Oroi Bildotsa, bigarrenekoz,
laztantz Gurutz gogorra.

Atoz, bai, Gurutze santu!
Besarkatu nai zaitugu!
Zure aztunak pekatario
biotz-damua neurtzen du.
Aldapa-goiko Ama-Semeai
leiaz nai zaitut aurkeztu!

*«Gurutze pixu izugarri bat
ipiñirikan soñean,
Jesus gurea paratu zuten
Galbariora bidean».*

*«O Jesus gurutzera
nigatik igo zerana,
ni jo ta zeatzera
maiz beartu zaitudana:
orain zure aldera
biurtzen naiz, Jaungoiko ona.
Ai! oroi zaito odola
neretzat eman dezula».*

*«Kalea-gora-bera dijoa Semea
soñean daramala gurutze berea.
—Gurutze ori ekartzu, ai nere Semea.
—Eztiot, bada, emanen, o Ama nerea.»*



*Onekin pasa bear dut eriotzea,
eriotzearekin Pasio luzea...»*

*«Gurutzean tut orai
ene atsegiñak;
Jaunak artuz geroztik
enegatik miñak.*

*Nahi dut orai bertan
has ditzen nigarrak:
garbi ditzadan ongi
egñ tudan hutsak»...*

Arantzazura erromes
guruzpide dan arbidez,
aldapan-gora promesadunak,
—sokaz, gurutzez ta katez...—
Ama-Semeen pauso berberak
azkendu beste leirik ez...

Pagaditako itzala,
bai etzan-leku yaukala!
Arnaska, izerdiz, aurrera, alare,
gure bidazti leiala,
Amagana-arte atsedeen-gabe,
presaka, aurrerratu-ala...

*«Salbetarako elduko ote naiz
Gurtzipizio-gañean,
Gurtzipizio-gañean eta
Birjiña Amaren etxean?»*

Gurtzipizio-gañeko
Aita-Seme Gurutzeko!:
gure zai zaude, promesadunak
noiz Zugana iritxiko...
Nik dut gogoa zure oñetan
belauniko erortzeko!

Pagadian iturria:
—«Bidazti, ase egarria...
Ez dek edango atsegiñezko
nere ur txoragarria?»

—Naiago diat (dio erromesak)
Andra-Mari'n iturria.

*«...Birjiña Amaren magal santutik
iturri garden bat doa.
Egunean bein an ura edanda
uso zuria dijoa.
Jende guzia miran zegoan
nora zijoan usoa.
Ego txuriak an busti eta
Paradisura dijoa.
Ura an edaten duen anima
Paradisura dijoa.
Iturri artan bataiatu zen
Kristo Erredentorea,
Kristo Erredentorea eta
guzion Salbatzallea».*

Mundu-atsegiñetatik
gorde nazazu edatetik.
Bakar-bakarrik edan nai dizut
zure arako Iturritik:
betidañoko Bizitzaraño
dijoan zure Ur bizitik.

Jesusek:

—«Bai al dezakek, edango al dek
nere oñaze-edontzia?»

Erromesak:

—Bai, edango det tantarik-tanta.
Indazu artan grazia!
Atozte lagun Ama-Semeok
buka zadan Nekaldia!!

*«Izar eder bat ateratzen da
urtian egun batian,
urtian egun batian
eta ura San Juan-goizian.
Aren argitan ninjuanian
Arantzazura-bidían,
Birjiña Ama ta bere Semia
topa nituan partian.*



*Odola pranko ixuri zuen
oñutsetan ta lurrian.
—Ene Semia, eutsi zapatak,
jantzi eídazuz oñian.
—Ez, Amandrea. Largatu bedi
onela nuan artian.
Nik eriotza artu biar det
Kalbarioko mendian,
Kalbarioko mendian eta
Gurutze ggor batian.
Nik eriotza artu biar det
Gurutze ggor batian».*

Irudimenak ote sor?
Erromesa auzpez pozkor...
Erdi-Aroai agindutako
Bidelagun Ama aor!
Guruzpideko laugarrenean,
bidera Ama errukior!

*Arantzazuko Amak,
bidera irtenda:*

—Euskal-erromes gaixoa:
anbat sufritutakoa...
Gauza aunditako jaioa eta
Jesusen anaitzakoa.
Esku legunez ukendu nai det
nik zure kalbarioa.

Erromesak:

—Uste ez'eneko amesa,
iñolaz merezi-eza!
Betorkit, o bai, ordu onean
zure gozo ta babesa,
azkeneraño eraman zadan
nere pasio nekeza!

Amak:

—Bereala Arantzazu.
Gaur gauerako ostatu
nere etxean badezu.

Gau-bijilia nere begirak
pozez gañeztuko dizu.
Luzaro-gabe, Salbetarako
ara elduko gaituzu.

Erromesak:

—Gurtzipizio lenago.
Eta an Aita-Gurutzeko,
odol-zauritan buru eta oin,
esku-zabal ni artzeko...
Odol-zauritan esan nai diot:
«Ona ni zure antzeko!»

Gurtzipizio-gañean

Erromesak Sto. Kristori:

—«Or Zu, esku-oñak iltzez,
burua josita arantzez...
Ni pekatari, ni pekatari,
emen nadukazu auzpez.
Anai zaitzadan, anai nazazun,
miñez ni ere Zu legez...

»Odol-zauritan nabari
zure gorputz guzi ori
ta urrena, aldiz, nabaritzean
odol-zauritan neroni,
oi nere poza, Jesus anaia!
Ez det damu erromer!

»Nola, bada, ene Yesu,
erromes joa ez poztu,
neri begira zakustalarik
ain gozo eta maitetsu,
zure aotik entzungo bai'nu:
anai zaitut, anai nazu!»



Orra Arantzazu, orra nun!
 Erromesak lurrari mun...
 Santo Kristori auzpez baño len
 erromesak ikus zinun.
 Orduntxe bertan kanpai-ots leunak
 Salbetarako deitze zun.

Yerusalen! Yerusalen!
 Zeru ta lurrak bat emen!
 Ama Mariak aukera zigun
 lurreko zerutar lurmen!
 Pelegriñoak, besoak zabal,
 or nola agurtzen zaituzten!

Besoak zabal... badirudite
 Aitaganako opalkiak,
 Gurutzekoa'ri erantsita
 euskal-opalgai berriak,
 giza-obenen barkagarritzat
 Zeruari eskeñiak...

Elizarako tartea,
 oraindik falta bidea.
 Lur santua auxe, santurik ba'da,
 emendik arakoxea!
 Belaungorritan egin bear da...
 Indarrik ote, ordea?

Gorputzak ezetz, gogoak baietz;
 gogoak aginpidea.
 Belaungorritan, are geigotuz
 ordurarteko nekea,
 belaungorritan jetxiko zaizu
 erromeri-sail luzea...

Elizan

Aldarean Andra-Mari,
 urrez ta argiz dizkizari.
 Uso-egalda doa korutik
 Salbea kanta-kantari:
 —«Gabon Jainkoak deizula eta
 ongietorria zuri».

Erromesak:

—«Arrimallatan altuan dago
 Birjiña Begoña'koa.
 Ala ta bere altuagoan
 Birjiña Arrate'koa.
 Birjin danetan ederrena Zu,
 Ama Arantzazu'koa!»

Ezagun dizut: zerori
 zerade, bai, Andra-Mari,
 Ama eginda irten ziñana
 bidera erromesari.
 Tori, Andra-Mari, tori
 nere miñezko Nekaldi!
 Eskein zaiozu zerorrek, Ama,
 nere miña Zeruari!

Kandelargiak eundaka
 urtzen, aitzen, ñirñiraka...
 Ateak itxi... Eliza illuntze...
 Erromesa an gelditzen da
 bijilirako yoran-garretan,
 kandelargi, aitu-nai'ka...!



GAU-BIJILIA

«Pauso santuak kontatzen»

Igoera guruzpidea zan bezela, egoera Kristoren
Nekaldi-berritzea izaten zan. Ori, gau-bijilian baiti-
pat.

Emen, orduko kanta-jardunak, penitentziketak,
aldaretako irudi pasiokoiak..., eta euskal-kristautasu-
naren oñaze-zalea. Oñaze-zale ura, arrigarria bezin
izugarria.

Izarñoak ernai ñirñiraz zeruan...
Lozorro mundua illunpe itxuan...
Damu-kanta, aldiz, an Eliz-barruan
Zerurantz bidazti doñu anpatuan...

Ixo, arran-otsen urrun-dilindala.
Gauaren ixillak magaldu dezala
itzartien damu-kantak eman-ala,
pilpiraz dardartuz ozkarbi zabala.

Amandre illargia: zuk bein ikus zenun
Jesus Olibet'en lagun-gabez itun
otoitzean larri... Aren otoi-lagun,
ona euskalduna; begira amen, entzun!

*Gau-emalleak,
danak bat:*

—«Ermitatxo bat eidazu eta
nerea izango zera zu».
Zure eskaria, zure eskeña
gaur gaez zertu nai degu.
Gau-emalleak ura lortzera
penitentziz gatozkizu.
Asma dezagun Ermitagintzan,
Ama, lagun egiguzu!

Erromes-sail beltza ari da kantetan
eliza-barruko penitentziketetan.
Damu-negarraren errautsa kopetan,
santutasun-miña biotz-begietan....

Eliza-betean errezo-marmarra
Eliz-jirabian, nekez, barra-barra
zenbait gurutzadun. Aietxen sugarra
miresten, txanda-zai, erromes-abarra...

Errosarioa naiz kalbarioak
bat-beste-atzetik guzien aoak;
ta irakur zer dion Ama Agreda'koak...
Tarteka, aringarri, kanta-zar gozoak:

Batek:

—«Birjiña Amaren gaua da eta
dasagun bere kantia.
Nik kantaiko dot kantia baña
ondo erantzun, jentia.

...Errodrigotxo juañ zaniañ
ardiengana mendira,
antxe zegoan Birjiña arantzan
artzaitxoari begira.

Danak:

—Errodrigotxo Baltategi'ko:
ermitatxo bat eidazu,
ermitatxo bat eidazu eta
nerea izango zera zu.

Nik zainduko tut zure ardiak
belate garbi batean,
belate garbi batean eta
elorri onen aldean».

Ostiral-gauero bijili bereza.
Egun artan Yesuk Pasio nekeza



eramanaz sufri bai-zun Eriotza;
ta igande-goizean Berpiztea goza...

Ostiraletako bijili bereza:
Nekaldi-antzetan gau osoa luza
ta biamon-goizez larunbata-Meza;
Mezan jaunartzean Berpizkunde-poza!

Asiera dizu Benedicta'rekin.
Pralle-abetesatzak milla aingeruekin
buka bezin laister: «Agur, gure Erregin»,
ordun bijilia, nai duanak ekin.

Abe-Marikoan gau-ezkillak dulun:
—«Gabon, erramesa, Pake ta Osasun.
Kanpora illunpetan obe dezu ez jun.
Amaren etxean gau osoa irau».

Gau-emalleak:

—Damu dizugu oben egiña,
damu degu pekatua.
Barka zaiguzu Ama on orrek;
barka, Gurutziltzatua.
Begira emen zuen erria
auzpez belaunikatua.
Atozte lagun osa dezagun
zuen Pasio santua.

Elizaren alde bat eta bestean
Pasio-irudiak, beren aldaretan...
Ta krisallu-tzarrak aien argiketan,
leñuru orizta banatuaz ketan...

Aldare batean, Jesus Pillareko.
Abe mokor bati lotua apalkiro,
borreroen zirti-zartak artzen dago...,
begiak dirdiraz eriotzeraño.

Gurutziltzatua, urrena, bestean,
aoa irikita eskari luzean...;
biotz ebakiaz, Ama an barrenean;
ta Santa Madalen negarrez lurrean...

Gau-emalleak:

—Santa Madalen, Santa Madalen!
askoren erakustuna,
asko maitatu zenuelako
Jainkoak barka zizuna:
Guk ere baita nai degu maita
t'eraman gurutz aztuan!
Nai degu izan gurutzondoan
iruron neke-lagunak.

Irugarrengean, illobi santua:
albo-aldaretan geiena aipatua.
Emen noiznai dezu jende damutua,
Gorputz illari so, belaunikatua.

Neketako Ama, beste arakoa,
Semerik gabeko Doloretakoa;
begiak beera, lurrerantz dijoaz
non billa Aren orde zemez artzekoak...

Gau-emalleak:

—Ar gaitzatzute gurutzondoan
iruron neke-laguntzat.
Kristau-Elizan izan gaitzean
Kristoren Gorputz oso bat,
martirio ezin ba'da re
beto z samina guretzat.
Anaitzat artu gaitzatzu, Jesus!
Ama, ar gaitzatzu semetzat!

Aldare nausian Andre-Errugabea,
Seme Eroslearen lenengo Lorea,
oinpean zapalduz gaitz danen sugea...
Kristau-oñazeak nolako ondorea!



Maita oñazea! Orra San Prantzisko
zauri gordiñetan. Gurutzetu-antzo,
saiets-esku-oñak iltzeztuak dauzko...
Esango litzake dala beste Kristo!

Batek:

—«Izar-argitan nentorrenian
Arantzazura bidean,
Birjiña Ama ta bere Semea
topa nituan parean.

Danak:

—Kontseju on bat eman zidaten
Ama-Semien artean:
on ta umilla izan nendilla
munduan naizen artean.
Gero e'nula damu izango
mundutik ninjoanean.

Batek:

Odola pranko ixuri zuen
oñutsetan ta lurrean.
—Ene Semia, eutsi zapatak,
jantzi eidazuz soñean.

Danak:

—Ez, Amandrea. Largatu bedi,
onela noan artean.
Nik eriotza artu bear det
Kalbarioko mendian,
Kalbarioko mendian eta
Gurutze gogor batean.
Nik eriotza artu bear det
Gurutze gogor batean».

Eliza-barrena batera bestera
gurutza-lorreak, Jesusen antzera,
txandan dabilkizu erromes-billera
penitentziketan gauetik goizera.

Zein baño zein danak alkarren leian
penitentzi-kera berrien naian.
Batzun-batzuk soña zigortzen saillean
Pillarekoaren aldare-aurrean.

Besoak zabalik diraute geienak,
gurutzatu-gisan bi esku gallenak...
Ez du aitzakirik tresnik ez duenak:
ontan daduka nun agortu lerrenak.

Esku-oñetatik kate latzak narres
dabiltz beste zenbait odolez ta nekez...
Aitortu-aurreko ilduren bitartez
Jainko-aserrea baretzen da errez.

Damu-txingarretan erre pekatuak,
samin-odoletan garbitu erruak,
semez artu gaitzan Ama nekalduak,
anaizat ar gaitzan Gurutziltzatuak.

Gau-emalleak:

—Zure kupirak, zure begirak
gozatzen digu samiña.
Baña, Amandrea, utzi zaiguzu
luzatzen Jesusen Miña.
Zuen Gurutze-Opariakin
gure auxe bat egiaña,
alaxe soilki izango bai da
Aitarenganako diña...

Luzatzen, luzatzen eusko-opaltzalea
bere buruaren Nekaldi luzea...
...Ñirñiraz malkotan begira izartea;
Zeruak erruki euskal-oñazea...



GAU-BIJILIAN IÑIGO

Passio Christi, conforta me

Gure bezelako Erri santuari bazegokion diñezko seme santu-aundi bat. Ona emen Loiolakoa, beretarakin bat eginda, ondo euskalduna, ondo gurea...

«Aita San Iñazio»ren bitartez lortuko du euskal-fedek Amaren eskaria: ermitatxo bat eidazu. Eta eskeñia: nerea izango zera zu.

Amandre Illargia: zuk bein ikus zenun
Jesus Olibet'en lagun-gabez itun...,
iru apostolu lo zeudela, zurrun...
Ona Euskalerrri Aren otoi-lagun!

Atzerritar bidazti,
munduan-barrena
Erri ez-ezagunen
billa zoazena:
atoz Arantzazuko
eliza-barrena,
emen arkiko dezu
euskal-Sinismena!

Ta zuk, Konpostela'ra
zoazen urlia,
ez uste euskal-jendea
dala ain basatia.
Ez, nondik kalte egingo
bizi dan piztia...
Antziñan ala ba'zan
gaur ez alegia!

Santa-Tria portura
bein eldu-ezkero,
ez kanta euskaldunen
kontra asma-alik oro.

Ikus euskal-anima
lenik emen; gero
aren aunditasuna
aipa baietz bero...

Erromes-sail beltza ari da kantetan
eliza-barruko penitentziketan.
Damu-negarraren errautsa kopetan,
santutasun-miña biotz-begietan...

Eliza-betean errezo-marmarra...
Eliz-jirabiran, nekez, barra-barra
zenbat gurutzadun. Aietxen sugarra
miresten, txanda-zai, erromes abarra...

Zein da, zein ori?

Zaldun gazte bat,
jantzian jauntxo-dirdira,
erromesakin nasian dabil
gau-bijilien arira,
zer kantatzen dun, zer egiten dun
bere erriari begira...
Jantzian jauntxo-dirdira eta
biotz-begitan pilpira.

Gau-emalleak:

—«Ermitatxo bat eidazu eta
nerea izango zera zu».
Zure eskaria, zure eskeñia
lortzen emen gabilzkizu,
Ama-Semeon Pauso Santuak
berritu eta berritu...
Asma dezagun Ermitagintzan,
Ama, lagun egiguzu!

Iñigo zaldun Loiolakoa,
Iruña'n elbarritua,
senda orduko erabat utzi
mundutar bizimodua



t'ona Arantzazun, Jainkoagana
zearo onbiurtua,
erriagandik orain ikasten
santutasun-elburua.

Iñigo zaldun Loiolakoa,
beste ñor baño geiago,
zartallu latzez soin-zigorketan
erruki-gabe jo ta jo,
euskal-anaien santutasuna
izpiz-izpi idosten dago,
aien onurak eta jardunak
jaso nairik areago.

«Nik santu nai det» —esana zuen
Loiolako jauretxean
Andra-Maria Jesus Aurraikin
ager zitzaion batean.
Jerusalen'en alkartzen dira
santu-bideak batean.
Jerusalen'a asmoa artu zun
kristau-erromes legean.

Jerusalen'a asmoa, baño
ez lendanik Jerusalem.
Andra-Maria Jesus aurraikin
aztuta utziko al zuen?
Arantzazun gau bat emango zun
Jerusalen'a baño len
Birjiña Amari eskerrak eman
ta biderako indartzen...

Iñigo zaldun Loiolakoa
igo zanean Mendira,
antxe zegoan arantzan Ama
Lensemeari begira:
—«Iñigo zaldun Loiolakoa:
ermitatxoa eidazu,
ermitatxoa eidazu eta
nerea izango zera zu».

Gau-emalleak:

—Zure Amatza eskein zenigun
gu seme izaten ba'gera.
Emen gaukazu penitentzitan
izarretik-izarera,
alik lasterren eldu nairikan
zure diñak izatera...
O, nai bezela, santu ba'giña
aurkezteko or aldarera!

Iñigo zaldun Loiolakoa
igo zanean Mendira,
gizaldi danen euskal-Fedea
ere zai zegon begira:
—«Iñigo zaldun Loiolakoa:
euskal-Eliza osazu,
euskal-Eliza osa dezazun
gure Santu nai zaitugu».

Gau-emalleak Amari:

—Erri santutan santuena guk
zu-lagun izan nai degu,
Ama beraren seme berdiñak
gaitezen Jesus eta gu.
Onera arteko besolaguntzat
bidera irtena zaitugu.
Aurrera ere santu-bidean,
Ama, lagun egiguzu!

Lastargi-su bat, Sanjuan-su bat
gau illunean piztua
degu onako gau-bijilian
euskal-fede gogatsua.
Onen argira, gure Iñigoren
santutasun-elburua
egunabartzen, zeru-gorritzen,
argiagotzen dijua...

*Gau-emalleak:*

—Begira gaude or aldarean
gure Aita San Prantzisko...
Gogoa bai guk, indarrak falta,
aren mallara igotzeko.
Grazia iguzu Jesusen miñak
ark bezela geuretzeko.
Grazia iguzu izan gaitezen
San Prantzisko'ren antzeko...

Egun-urratze paregabea
Iñigok goiz artakoa!
San Prantziskoren egikizuna
berbera berritzekoa,
—«San Prantziskok bai, nik zergatik ez?»
leietan dago gaixoa,
bere Erriari nondik iritxi
garaipen aundiagoa...

Iñigok:

—«Santutasunik aundienera
San Prantzisko bai, ta ni ez?»
Jerusalen'a joango naiz ni
Jesusen billa erromes;
emen natortzu, esango diot,
Euskalerrriaren partez,
orain arteko, gaur ta geroko
euskaldun danen izenez...
Artu gaitzatzu danok anaitzat,
nekalkide gaituzunez...

Gau-emalleak:

Euskal-etorki guzia degu
Zugana guruzpidea.
Ez degu inoiz bildurtsi guk
oñazea ta nekea.
Gogo dizugu biarko Mezan
gure buru-opaltzea.
Opaltzalle bat, Santu bat bear
artarako guk, ordea!...

An digokio Amari Iñigo,
begi-biotzak galdatan,
mallatan-gora aldareraño,
ezpañak zerbait izketan...
Atzetik beira, euskal-fedea
somatzen du bere-baitan
uraxe dula bere Santua
euskal-Amaren gradatan.

Iñigo santu Loiolakoa
igo zanean oindira,
gizaldi danen euskal-Fedea
an zegokion begira.
—Iñigo santu Loiolakoa:
euskal-Eliza opaldu,
euskal-Eliza opal dezagun
«bitarteko nai zaitugu».

Urrun-abotsak:

Zeru-deiaren adira
eldu kristauak Mendira,
Semetzat artzen gaituan Ama
'ren Opalmai nagusira!
Loiolarekin euskal-bideak
emen gallurtzen bai-dira!

...Esku bat luza bere Erriaruntz,
bestea Amarenganatu,
ta an dago gradan otoi bizian
Sorterri-alde leiatsu:
—«Zure ta nere Euskalerrria
nekalkide emen daukazu.
Anaiak ditut. Egin nazazu
Erri santu onen santu...

Gau-emalleak:

—Iñigo santu Loiolakoa,
euskal-semetan Lenseme:



odolezkoen patroi zaitea,
patroi eta opaltzalle.
Gure erraieran eldumin dagon
ametsa zerorrek bete.
Gure izeneko otoi bizi bat
zaitzagula, Amaren aurre!...

Iñigok:

«...anaiak ditut. Ni izango naiz, ni
Erri santu onen Santu.
Berak ezin dun Ermitagintza
neronek nai det osatu.
Nik egindako guzia berak
egiña izan bekizu.
Garbi izango naiz: tori zinitza,
gure Ama-Arantzazu!
Tori nere zin-opariakin
euskal-Oparia! Artzazu!

(Jainko-arnasez santu-bidean
gure Iñigo berria
Jerusalen'a abituko da
biamon-goizez, abia
Jesusengana ekarri-arte
Europa, mundu guzia...
Jerusalen'a, mundu guzira
Arekin Euskalerra...)

ALKARRIZKETA

Iñigok eta Arantzazuko Amak

«...biderako indarrak artzen».
Aurreko kanta'ri eraskin bat dezu onako «erroman-
tzea». Gaubijili-barruan txastatu bear da.
Iñigok santu izateko gogoia bai, baño bere gauza-
ezaren kezka agertzen du.
Ama Birjiñak eta euskal-fedeak damakiote indarra.
Ama Birjiñaren poza, seme ura ainbeste aundiko
santu eginda, alde aurrez, ikustean.
Azkenik, Iñazio santuak eskeintza dagi: bere burua-
rena, eta bere Erriarena.

Amak:

Iñigo zaldun Loiolakoa:
ermitatxoa eidazu,
ermitatxoa eidazu eta
nerea izango zera zu.
Iru latatxo, zazpi tellatxo
oiek gutxitxo dituzu.
Euskal-Elizak, euskal-fedeak
aundiagoa bear du.
Zurekin dagon Euskalerra
«bitarteko zu nai zaitu».
Berez ezin dun Ermitagintza
zurekin nai du osatu.
Orretarako egingo zaitut
Erri santu onen Santu.

Iñigok:

Zeruan eder izarrak milla,
Zerura deika lurtarrai...
Mundu-zalea utzi nunetik
amaikatxo gau-ordu bai
emana nazu, begiak malkoz,
aietxei begira ernai.



«Gure ñirñara baño gorago,
—izarrak digute esan nai—
gure ñirñara baño gorago
Jaingoa dago zuen zai.
Santutasunez bakar-bakarrik
zindezteke onañio garai...»
Izarrak milla begiratzean,
ezin eutsirik malkoai,
nere goi-miñak damu bat zizun:
gorputz aztunaren garbai,
nere goi-miñak keja bat zizun:
ez izan aratzeko gai!

Zure itzak, Ama, gaur entzutean,
alaxe naukazu, ez-bai.
Euskalerriko santu izatea
gogoak bai, gogoak nai.
Baña gogoak damu bat dizu:
anbat pekatuen garbai!
eta gogoak keja bat dizu:
ez izan artarako gai!

Amak:

Jentil-aroko Euskalerrria,
siñeskerien loipean,
argaiztoa ta gorrot beltza
beste gabe biotzean,
noragabeko landerbidean
zetorren aldi batean.
Nere Erri santu egingo zanik
nork esan bear zukean,
bidera erden nintzaion-arte
Arantza onen gañean?
Euskal-Kondairak laugarrena zun
orduán gurutz-bidean.
Nik donetuta emen daukazu
orain, zurekin batean,
Opalmai ontan amaika-amabi-
garrenak lortu naiean...

Andre-Maria Jesus Aurrakin
oroitzen jaiotetxean?
Bai, zuri ere irten nintzaizun
laguntzen senda-bidean.
Aurrera ere neronek santu
egingo zaitut, arean.
Nere laguntzaz oro daikezu
Jesusen banderapean.
Jesukristoren banderarekin
mundura zoazkenean,
oroi Erria, bere gomutaz
indartsu senti zaitean;
oroi, Erri au dijoazula
gogoz zurekin batean,
...Santio baño argiagoko
mixiolaria-bidean...

Iñigok:

Izar artean aratz dijoa
Santiago'ko bidea...
Aren luze ta dizdiratsua
ba'nu nere adorea,
bai gozagarri litzaidakela
zure esana betetzea!
Aragi-griñak, zaldun-ametsak,
Loiolako jauretzea,
dana ukatuta, lei bat bakarra
dizut, besterik gabea:
Zu ta Jesusen, Zu eta zure
euskal-semen ohorea.
Gogoa bai nik eder ta luze...
Nolaz iritxi, ordea?
Nerez dagona agintzen dizut.
Indazu al izatea!
Betorkit zure laguntza. Betor
neretarren alkarte.
«Sorterriaren erreguetan
bear det, bezat partea»...



Oroi nazala, oroituko det
 abenda zorikidea.
 Beti gogoan eramango det
 nere Euskalerra maitea,
 nere Euskalerra maitea eta
 Arantzazuko Fedea,
 Arantzazuko Fedea eta
 gaur-gaueko mesedea.
 «Jainko-aintzarik aundienera»
 banoa, euskal-semea.
 Euskal-yorana Santiago'ko
 bidea añakoxea!

Amak:

Atzo ta gaur'ik, naiz gerokorik,
 ez du zeruak bereizten.
 Betiraunetik une berean
 nabari dizut dena-den.
 Xotil eta apal orain zaudena
 ba'ziña legez edozein,
 Lutero'n kontra ikusten zaitut
 Erroma'ko Santu guren.
 Oi nere poza euskal-seme bat
 dedalako Santu guren!
 Ama-pozaren parre eztieta
 ezpañetan zait loratzen.
 San Prantziskoren parean zakust
 Kristoren alde jokatzen,
 zure semeak mundu guzian
 gero ta ugariagotzen,
 mundu guziko luterotarrak
 zure oinpean zapaltzen...
 Ene Iñigo orrek ez dezu ikusten,
 edo beintzat ez somatzen,
 Pedro'n ontzia ekaitz-artean
 itxaso-gain beti gallen,
 Batikano'ko ikurrin deuna
 lau aizetaratz larden...,
 ta aren ondoko euskal-ontziak
 «Loiola-Arantzazu» izen?...

Iñigok:

«Euskal-eliza osazu eta
 nereia izango zera zu».
 Zure eskaria, zure eskeñia
 lortzeko gertu naukazu.
 Zure ta nere Euskalerra
 laguntzalle emen daukagu.
 Anaiak ditut. Ni izango naiz, ni
 Erri santu onen Santu!
 Berez ezin dun Ermitagintza
 neronek nai det osatu.
 Nik egindako guzia berak
 egiña izango dezu.
 Garbi izango naiz: tori ziñitza,
 danon Ama-Arantzazu!
 Tori nere zin-opariakin
 euskal-Oparia! Artzazu!!



EUSKAL-MEZA

Ostiral-gauean asitako bijilia larunbata-goizean
bukatu oi zan, Sortzez-Garbiaren mezarekin.

Denbora guziak antxe pillatuz, euskal-Kondaira
osoa («Jainkoaintzarik aundienera» arildua) Meza
uraxe entzuten dago, Loiola'ko lensemearekin bat
eginda.

Meza-barruko jaunartze artan lortzen degu Juan
ebanjelariaren Kalbarioko: ecce mater tua.

Ama zaitugu! Seme gaituzu!

Aizkorri-gañean Goizak eguzki-min...

Illargia, artean, gauaren erregin...

Izariñoak ere, poz-dardaraz, biguin,
aingeru bai'liran, zerutik ikusmin...

Erromes aitua, elizaren barren,
kantak atertuta, lerren baño lerren.
Aitor-jaunartzeko gertugo ditezen,
damu-txingarretan obenak erretzen...

Amadre Illargia: oraindio ez jun;
zure ezpañetatik nai dizugu entzun
beste Erririk ba al dan, ikusi al dezun,
onek aña Jesus maite dunik iñun...

Kanpantorre-goitik matutiak agur:
—«Egunon, erromes. Gauari ez bildur...
Goizarekin poza badatorzu labur...
Gaurko Mezan dezu ondasunen itur...»

Irurak aldean pralle-errezkada
kandelargi banaz aitorlekutara...
Erromes jendea, zirrara ta ikara,
barkapena-eske aien oñetara...

Kanpai-ots-egara, ozen, dilindari,
Pazko-Piztearen irrintzia iduri,
mendiz-mendi doa, Mezaren geznari...
Esna-berritu da lo zegon izadi!

Sortzez-Garbiaren larunbata-Meza!
gaur-jardun osoko itxaron-amesa.
«Neke-ondo poztu, poztu, erromesa»
sarrera-doñuan koruak dabesa.

Urdiñez errezkan iru mezakoak;
txuriz, aien ondo, iru lagungoak.
Prallen abesbatzak eta organoak
zein baño zein doñu zerutarragoak.

Euskal-Meza degu. Goiz-egunsentira,
Loiola'kin danok gauzkie begira.
Gizaldiz-gizaldi Meza aren dizdira
dardaraz zabaltzen doa Edestira...

Aitortutako pekatariok,
gau-bijiliaren ondoz,
Pasio-osteko Berbizte-billa
orain jaunartzera gatoz,
Jesukristoren irabaziak
mezon xurgatzera gogoz.
Aitortutako pekatariak,
miñak utzi, dezagun poz.

Egunsentiko len-argitara,
egatan ara-onera,
txori jolasti-esnaberriok,
kanta gurekin batera.
Ereserkia jaso gurekin
zeruaren goienera,
Bizitz-berrira pizten gaituan
Jainkoaren aldarera.



Laño ta lurrun, aize ta arnas,
bizitz-marmaririk oro,
esker-onaren agergarritzat
zerura igo bai igo.
Jainko-iguzkiak giza-laiotza
Mezerdiz argituz gero,
naiz zeru naiz lur begiratzean,
oro eder..., oro Jainko!

Aintza zeruan Jainko onari,
aintza bai, azkengabea.
Eta lurrean gogo oneko
gizonentzako pakea.
Jainko izatea utzi gaberik
da Kristo gizasemea.
Jainkoa Jainko, gizonok gizon,
Mezan degu alkarte!

Gizadiari aspaldi batez
emandako Zoriona
gutxi bai'litzan, Arantzazura
agertu zitzaigun ona.
Palestina'tik Errege ta Anai
genun gizon guziona.
Aloña-Amaren besoetatik
baitipat euskaldunona!

Zer dala-ta Zu, Jainko-Gizona,
gure-baita elkorrera?
Zeru ta lurren Egille bera
aur gaiztagiñen barnera?
Ardo-ogi-itxuran, zure maitea
norañokoa ez ote da!
Iñolaz ere Zu gure-baitan
artzeko diñak ez gera!

Atoz, alare. Zure janariz
Jainkoz jantzi gure utsa.

Zuk, ez beste iñork zornetzen bai-du
ta ezilkortzen bizitza.
Zerau zeranez gertatu diran
egintza aundi danen giltza,
Zuk damaiezu euskal-ametsai
arnasa eta biotza.

Beti gurekin ibil zatzaigu
noranaiko txangoetan,
zure laguntza ta eustapena
luzatuz premi danetan.
Nola ez, bada, guk Zu aintzatu
zertu-ala egintzetan?
Meza bat dezu, ain zuzen ere,
euskal-Kondaira mendetan!

Erljioa izan da beti
gure elburuen bulkoa,
gure elburuen bulkoa eta
lei ederrenen auspoa.
Jainkoa degu lemazain eta
jomuga ere Jainkoa.
«Jainko-aintzarik aundienera»
gure nondik-norakoa.

Jainko-aintzarik aundienera
amaikatxo euskal-seme
junak dituzu mixiolari,
beste asmorikan gabe...
Lei orrek berak bultza oi zitun
lur-billatzalleak ere:
Lur berriakin animak billa,
Zugana ekarri arte!

Aundia ba'da euskal-kondaira
gizonen ikuspegi'ra,
aundiagoa derizkiogu
Jaungoikoaren begi'ra.
Aintza-apparrez Elkano-ontziak
inguratzean lurbira,



aren gañetik Goi-lemazaia
zaintzen bear da begira!

Zure begitan begiko gera
—poz degu gogoratzea.
Jainko-begitan kristau-erririk
kristauena agiz gurea.
Siñeskorrean, biotz-garbian,
tolesgabean..., umea.
Adore bear danean, aldiz,
Erri zail, gizon, trebea.

Euskaldunik bat dan bakoitzagan,
an bada kristau pijo bat.
Kristautasunik ez dunak
euskaltasunik ere ez anbat.
Bizia, arnasa, ogia..., zer ez
zeru Zu, Jainko, guretzat?
Euskalerria Zuretzat dago,
zure eskuko mirabetzat!

Mendi-artean zerura-beira
bizi dan erri apala,
ez du munduak uste Euskalerrri
ain zorioneko dala.
Oitura onez, sinismen beroz,
Zu Jaun ta Jabe zaitula,
zeren bearra du euskaldunak
jakiñik maite dezula?

Kalbario-mendi

Jainko-begiak Kristo du soilki
maitagarri Beraz-kanpo.
Begitartea Ari bakarrik
Aita-Jaungoikoak dio;
ta Arengan, Aren dirdai diranai:
Andra-Mari'ri lenengo;

ta Aren Gorputza osatzen degun
kristau guzoi, urrengo.

Jainko-begiak Golgota bezin
ez dakus aintzagarririk.
—Nork aintza diñik Aitari eman
Jainko-semeak ez-ezik?—
Mendi artantxe ikusten gaitu
gizadi dana baturik,
maitagarritzko Sendi bakar bat
Jesusekin osaturik.

«Orra or zure semea» —an dago
San Juan Amaren ondo.
«Orra or zure semek» —an ere
enderri guziak tinko,
Jesukristori il-Oparian
nork geiago lagunduko.
Sufrimentuan zein audienak,
aiek Jainkoak gogoko!

Erromarekin an dago Itali:
santu-saldo ugaria...
Kruzado-jantziz jakin-dirdiraz
San Luis'ekin Prantzia...
Bana-banaka an Erri danak;
Europa, mundu guzia...
Arantzazukin, Loiolarekin
an ere Euskalerria!

Iñigo dala Opaltzalea
ta Arantzazu aldarea,
Gurutztatzatu-biran an dago
Euskalerrri min-zalea
albo-albotik Jesukristori
eskeintzen bere nekea:
—Meza bat danez, artu Zuretzat
euskal-Kondaira betea!

*Kalbario mendian**euskaldunak Jesus ilzoriari:*

—O gure Jesus Salbatzallea:
 anaitzat artu gaitzatu,
 Aita-Jainkoak begira gaitzan
 begitartez Zurekin gu.
 Gure Edestia Ermitagintza,
 zure Gorpuzgintza dezu.
 Andra-Mariren seme gaitezen,
 anaitzat artu gaitzatu...

*Arantzazun, gau-emalleak**larunbata-mezako jaunartzean:*

—O gure Jesus Salbatzallea:
 orain bai anai zaitugu.
 Gurea zera, zureak gera,
 gurea Zu, zureak gu.
 Gure euskal-mezak ta zure Mezak
 zure ta nere'rik ez du.
 Jainko-begitan Opari bakar
 yadanik egiten degu.

*Ta Andra-Mari'k, Errodrigori agindu ziona**kunplitut, Euskalerra seme-semetzat artzen du:*

—Ene Euskalerra, txit enetxoa:
 nere-nerea zera zu!
 Miñak maitatzen dakizulako
 miña poz biurtu zaizu.
 Miñak maitatzen dakizulako
 zaitut orren zoriontsu...
 Ermitatxoa ein didazunez,
 seme zaitut, Ama nazu!

Amandre Illargia: yadanik erantzun,
 zure ezpañetatik nai dizugu entzun
 beste Erririk ba al dan, ikusi al dezun,
 onek aña Jesus maite dunik iñun...

Larunbata-mezaz eldu da azkenera
 erromeriaren oi dan arabera.
 Erromesak itzul norberen etxera;
 ez danak: Iñigo Jerusalem'era...

Zapatu-goizaren egurats zolia!
 Barruan poza ta Jaungoiko-grazia;
 kanpoan, argitan zoro, eguzkia...
 Bai eder zerala gure Euskalerra!

Itzali izarñoak, zeruaren oztin.
 Illargiak agur, gelditzerik ezin...
 Euskal-Eguzkiak irteera Aizkorrin,
 kondaira-gañaren gallurrerako miñ...



«AGUR, JESUSEN AMA...

Itzuleran poz

Oraindañoko miñak orra poz biurtu. Jainko-graziz berrituta, orain erromesa kantari dijoakizu Arantzazutik etxerakoan. Kantari kondaira guziaz ere Arantzazuko Amari.

«Zuk zer dezu, Arantzazu...?» —galdetzen du kantak.

Izan ere, ainbeste ta ainbeste kantazar goxo dira eusko-folklorean Arantzazuri-buruz. Aor beste zenbait santuario, euskaldunaren ondo gogokoak: Urkiola, Aralar, Lezo. Ta kanta-alerik ere ez dute izan eliza ospatsu oiek gure aurrekoen aoan.

Arantzazuko Amari, berriz, euskal-probintzi guzietatik zuzendu izan zaio poemarik bikañena, nondik baño nondik ederragoa.

Esan, bada, beraz, onako poema au (irakurtzen ari zeran au) ez dala iñorena ez nerea. Baizik Erriarena!

«Euskalerrria poema bat da
Andre-Mariaren opaz».

Kantuak, pozaren egaz,
egatan goiza argituaz!
Arantzazutik etxerakoan
erromesak kantuz doaz.

*«Agur, Jesusen, Ama,
Birjiña maitea;
agur itsasoko izar
diztiatzallea;
agur zeruko eguzki
pozkidaz beta;
agur, pekatarien
kaia ta estalpea!»*

Bi beso lez bi errezka,
—prantziskotarren besarka—

eliz-atera bidelaguntzen
pralleak, azken-agurka...

Ta erromesak an dijoaz
goizaren lau bidietaz!
Aupa ta eupa, etxerakoan
erromesak kantuz doaz...

auzora daramatela,
miragarrizko bezela,
Andra-Mariren iturri-ura
edo ogia, bestela.

*«Baña, zugandik alde
biotzak ezin du.
Zuregana dijoa,
Zugan bizi nai du.
Birjin paregabea,
bedeinka nazazu.
Agur, Ama nerea,
agur, agur, agur».*

Kantuak, pozaren egaz,
egatan goiza argituaz!
Jainko-grazian dijoazenak
poza apartzen dute kantaz.

Kanta: doai zerutarra,
barru-pozaren aparra!
Gauak eder du izarra. Auak
ederrago koplazarra.

*«Birjiña Arantzazuko,
lora ederrari
gaziak ta alabantzak
emaiten nator ni.
Asko etorten gara
munduaren kabutik,
asi Prantziyan eta
Españi guzitik.
Danok bidaltzen gaituz
txit konsolaturik,*



*lenengo konfesatu
ta komulgaturik».*

Urretxindor kantaria,
baso-basoan gordia...,
gau eta egun ospatzen da ari
maiteñoa ta kabia.

Euskalerra kantaria,
baso-basoan gordia...
Amaganako aintza-kantetan
dijoakizu bizia.

*Kantuz sortu naiz eta kantuz nauzu bizi
Kantuz ez duta, beraz, hiltzea merezi?
Kantuz eginez geroz, munduan bizia,
kantuz egin bear dut, ontsalaz, hiltzia;
kantuz eginen ere zeruan sartzia...*

Zoragarritzko nasian,
etxera-bide argian,
euskera-mota berezienak
entzuten dira mendian.

Gipuzkoarrak:

*Gure Ama Birjiña
Arantzazukoa
laguntzale ona da ta
danon gogkoa.*

*Arantzazun dagoan
santa ta santuak
beti izaten ditu
kanta ta kantuak.*

*Arantzazu-mendiko
krabelin gorriya.
Neskatxa muxu-gorri
engañagarriya.*

*Arantzazu-mendiko
paguaren onduan
Birjiña Santisima
nedukan goguan.*

*Arantzazutik nator;
auxe nere poza;
antxen ikusi bai-det
pralle kaskamotza... t.abr.*

Bizkaitarrak:

*Mundu onetan gura dabenak
zeruko lorak ikusi
Arantzazuko mendian-gora
biar dau bidia ikasi.*

*Bedarrik ederrena
soluan gariya;
Andrarik ederrena
Birjiña Mariya.*

Laburditarak:

*Eskualdun fededunak, zahar eta gazte,
Amaren laudatzera lehia zaitzte.*

*Arantzazuko Birjiña,
Ainhoa zaintzen duzuna;
ametan zu samurrena,
zure aurren zoriona.
Zaitugino maitatuko
ez zauku deus faltatuko.*

*Zu zare zu, o Maria,
sokhorri miragarria,
gixtinoen argia,
oi izar maitagarria.
Bai zuri gure begia
beha dago atzarria.*

Zuk zer dezu, Arantzazu!
ames-kabi, erti-leku?...

Euskalerra oso-osorik
kantari dijoakizu.

Izena bera —Arantzazu!—
kanta ederrena dezu.
Itz bakar ori mintza orduko
kantari jartzen gaituzu.



Izen ori, —Arantzazu!—
mintzatzen ezin aspertu.
Ama-izenak duen goxoa
zuk euskaldunentzat dezu.

*Arantzazu, Arantzazu,
itzik eztiyena,
euskaldunak biyotzez
maite zaitubena;
gure erreguetan
zu zera aurrena.
Bedeinkatua izan
bedi zure izena.*

Euskal-bertso ederrena
Arantzazu'ren izena.
Lenen-puntua Amak eman du;
osa semek bigarrena.

—Kantuak, pozaren egaz,
egatan goiza argituaz!—
Zar eta gazte, euskal-semeak
osatzen kantari doaz.

*Ara emen bertsoak
oraingo berriyak,
Ama Birjiñarentzat
konsolagarriyak.
Bidian kantatuaz
joateko jarriyak
Asteasun bizi dan
Pello errotariyak.*

*Naparruako gazte batek,
Arantzazun ezagututako
maiteari agur dagio,
urrengo urterako itz-emanaz:*

*Panplonan-bera banoa eta
zer gogo dezun esazu.
Zinta eder bat biali idazu
borondaterik ba'idez.
Adios, bada, dama noblea,
Arantzazura arteko*

*Antxe egongo naiz, besoak zabal,
zatozenezan artzeka
Arantzazura erromerian
eldu-den urtez etorri,
amoriozko begi ederrak
erakutsiaz elkarri.*

*Bestelako unkiagarria izaten da aitona zarren azken-agurra, berriz Amatxo
ikusterik ez dutela izango igertzen dutenean eta azkeneko muñotik, malkoa
ezin gorderik, otsegiten diotenean: Agur, Josafat'eko zelaira-arte!*

*Aurtengo onekin berrogei ta bi,
natorkizula urtera
Gaurero ezin bixitatu al
izango zaitut berrira.
Negarra darit akordatzean
etzaitudala ikusika
Josapat'eko zelaira-arte!
Orduntxe zaitut espero!*

Katabera, Urrexola.
Ara ezkerro, beñola,
begiz galtzen da Arantzazu urrun.
Jaunak urteon deiola!

*Arantzazutik bagiaz.
Agur; gure Ama;
nere amoriyuak
orrera narama.
Danontzat eskatzeizut
osasuna ona.
Grazi ori bialdu
ezezu gugana
berriz ere etorri
gaitezen zugana.*

*Etxe-aldera asi
genduben burruna.
Tristura aundiya niyon
jendiai burruna,
atzera begiraka
mendiyen-gora junda
alkarri galdetubaz
gure Ama nun da.*



*Guk zenbat maite degun
ortik ezagun da.*

Kataberako gañetik

Katabera'ko gañetik
—nuk arki balkoi oberik?—
itxasoraño nabari dezu
Euskalerrria osorik.

Erri otxan paketsua,
Jaungoikoak maitatua,
eliz-fabrikaz goratzen dago
etengabeko kantua...

Mendiak, beso antzera,
zutituz, Zeru-goiera;
ibarrak, errai-antzoz, zabalik
Jainko-graziak artzera.

*Ara zer alai dagon
gure Sorterria,
baserritxoak nunai
ta nunai pakia,
mendi-gain bakoitzean
txabola txikia,
artalde bat ondoren,
gero, gurutzia!*

Menditan, baserritxoak.
Baserrin, seaskatxoa.
Seaskatxoan, amak zainduta,
irriparrez lo aurtxoa...

Birjiña Arantzazuko
Amatxo nerea,
ez eidazu mudatu
au nere semea.
Loo...

Kataberan, Arri-uridin.
Oloak txitak ez bezin
maiteki Amak eusko-aurloa
zaintzen du emendik, biguin...

Arantzazuren agurra
dakartzugu, eusko-lurra,
Arantzazuko agurrarekin
Amaren zaingo xamurra.

Euskalerrri urrumatzu;
zorionekoa bai zu!
Negar egiten dakizulako
miña abesti biur zaizu!!

Andra-Marik zaitu seme.
Yesuk, aldiz, anai maite.
Jainko-graziak zauzka kantari!
Iraun kantuz beti-arte!

*«Xoriak, zuen oianetan
lauda ezazue Jauna;
alpha haren ontasuna
inguru guzietan.*

*Ez bedi entzun bazterretan
zuen musikarik baizik;
Jaun onaren ohoretan
ez bara kantatzetik.*

*Arditxoak, bazka zaitetzte;
ene zuen zoriona!
guiz-arrats ari zarete
laudatzen Artzain ona.*

*Zuek, haize maitagarriak,
harraboxik eztienez,
munduan egin ahalez
emotzue graziak.*

*Phausurik gabe itxasoa
orroaz borthizki dago;
bainan ez du gutiago
ohoratzen Jainkoa»...*



Kantak, kondaira argituaz,
gizaldiz-gizaldi doaz!
Euskalerrria poema bat da
Andra-Mariaren opaz.

Zuk zer dezu, Arantzazu!
Zeu zerala lenen-puntu,
Euskalerrria gizaldietan
kantari dijoakizu...

AMA ZAINDARIA

(Mirariak)

«Ama zera-ta semien alde
zuk zer egingo ez dezu?
Gure samiñak gozatutzeko
zaude bai or Arantzan-ZU!»

(Fr. Antonio de Arruti)

Ama degunez, Zaindari azaltzen zaigu orain Andre-
Mari, semeen alde mesedeak eta mirariak egiñaz.
Emen bost aukeratu zaizkizu beste ainbat probin-
tziri egiñak, aurretik, (lenengo puxketan) siñeskun
edo asele bat dutela.

Gaixorik nun? Egalari
sendatzera Andra-Mari.

«Iturriak badaki,
kañabera nun den»;
Andra-Marik ere bai
gaixorik non duen.
Aietxen etxez-etxe
gauero da ibiltzen,
Arantzazu utzita,
erriak sendatzen.

Gaixorik dan orduko,
egan aidez-aide
an dezu Andra-Mari
aldatua araxe.
Gaitzen bat nun ote da?
premirik nun ote?
Andra-Mari egatan
ara sendagille.



Anbat luzeko bidez
zerutik jetxia,
gaixo-gelan sartzen dan
Artizar-izpia...
Bai bidazti biguñia,
bai maitagarria,
oian dagonarentzat
Zu, Andra-Maria!

Illargia ez bezin
ixil eta goxo
lo dagon gaixoari
urreratzen zaio,
bere eskuz izerdiak
legortu... ta gero
pa batez osasuna
biurtutzen dio.

...Ta an doa berriz ere,
berriz aidez-aide,
beste eri-etxetara
danen sendagille.
Ez, baña, bakoitzari
agur egin gabe
esanaz: «Gabon, seme,
ta beste bat arte».

Euskalerra osoko
elbarri ta eri,
galde bearrik gabe,
bat-dana dakizki.
Alako probintzian
lau, beste artan bi...
Guzien gelatara
dabil egalari.

Oiñ-antzeko zulo bat
arkaitzen batean

oartzen duteneko
auzo bakoitzean
—«Amaren oñatza da!
(diote batean)
Emen takatzen da Ama
errira jeixtean!».

Gauero aidatzen dan
Zeru-egaztia
ez uka antziñakoai
dala Andra-Maria.
Sinismen gozo ortan
lo dagin Erria
izan da, lau gizaldiz,
gure Euskalerra.

Sinismen gozo ortan
etzanda burua,
Amaren egopean
izan dizu loa...
Bai lo zoragarria!
Zerutar aur-loa!
aurrak aman altzoan
ez bezelakoa.

Elbarri ta zauritu
oñazedun oro,
ez gauari bildurrik,
bada, onezkero.
Gauaren erregiña
ez da Mari-gaizto.
Yagole ezin-obeak
gaitu bere zaingo!

Izarño jolastiak:
Birjiñari leku.
Gaur ere bide luzez
aldatu bear du.
Terranoba, Laburdi,
Bizkai ta Naparru...,



gaurxe bertan ibilli
bear omen ditu.

Eta zuk, Euskalerra,
egizu lo lasai,
Andra-Mari bai-dabil
zure loaren zain.
Legorreko andreak:
ez egondu ez-bai,
itxasokoen kezka,
itzuliko ote zai.
Mariaren esku utzi
dana; ta lo orain.

Aingeruen kanta da
Anjelus jotzean:
—«Gloria zeruetan.
Pakea lurrean.
Zeruko Aurzaiaren
ego-babesean
lo dagin Erriari...,
pakea lurrean!».

Gaixorik nun? Egalari
sendatzera Andra-Mari...

Bizkaian dezu Zaldibar.
Zaldibar,
beti negar goiz ta iñular!

Zaldibarren neskatoa,
gajoa,
zazpi urtez gaitzak joa;

gaixoa
deabruak eraso.

Birau ta lerdea aoan,
amorrusua kolkoan;

beti deabruen mende...
Ta ai ene!
sendatzerikan ez uste...

Ta alaxe
zazpi urte luze-luze...

Arantzazuko mendira
begira,
itxaropenak dizdira...

—«Andra-Marik sendaturen!»
Ta ain zuzen,
aita-amak agindu zuten

bi meza
ta Arantzazura promesa.

Aita-amen otoitza:

Ez geranak geralako,
Zu zerana zeralako,

ANDRA-MARI! senda zazu
ta prestu
irurok jungo gaituzu

erromes
Arantzazurako bidez!»

ANDRA-MARI'ren izena
ai ene!
deabruentzat txarrena.

Entzun duten ordukoxe
ai ene!
motrolloan danak aide...



Ta bertan
neskatoa sendatu zan

ta iritxi zun poz betea:
osasuna ta pakea!

...Zaldibar,
orain parrez goiz ta iñular!

Premirik nun? Egalari
laguntzera Andra-Mari...

Jaizkibel-barrean dago Ondarrabi,
itxasoarekin ametsetan beti.
Prantzia ta España'ren erdiz-erdi,
biak norberentzat nai lutekean kabi...

Zortzi aldiz, zortzi,
jauki dute, jauki!

...Baña Ondarrabi,
biotz eta begi,
itxasoarekin ametsetan beti!

Zoritxarra omen da polita izatea.
Egia ote danez mintza zaitea.
Zuk bat maite dezula zeu askok maitea,
miru askok dizute luzatzen erpea.

Bat izan, ordea,
zuretzat jabea:
Kantauri trebea,
itxas ongillea.

Arrantzalea izan, arrantzalea!

Milla seireun eta ogeita emezortzi.
Orra Prantzia berriz zure-gain jausi.

Naiz il edo bizi,
giputzak! ez etsi.

Beintzat iltzen dakigula erakutsi!

Irun'dik zear sartuz, Lezo, Errenderi,
Pasaia ta Oiartzun prantzesak kizkali;
ta atzetik zitalki
eraso ta esi
anbat kostea bear zuan Ondarrabi.

Ango izkillu-soñu ta ango jazarkera!
Amabost milla bonba lertu kalera.
Naiz milla galera,
ez egin atzera.
«Aintza irabaztera
eta ez galtzera etorri bai gera».

Iñungo laguntzarik gabe ta txit estu,
bi illabete luzean, esi-pean, izu...
Kañoiak, jo ta su,
arresia txautu...
Ondarrabik askorik iraungo al du?

Ia errenditzeko zegon garaiean,
Butron alkate jaunak ordu onean!
bazekila, artean,
nondik letorkean
garaipide ziurra —zuan itzeman:

—«Ez aztu Arantzazun danon Zaindaria.
Datorrela nai ba'du Prantzi guzia.
Gurea da auzia!
Eutsi, alegia!
Laister azke dugu-ta Ondarrabia!»

*Aloñako Amaren jai egun bezperan gertatua.
1638'ko agorrak 7.*

Batalloi lagun batek, ain zuzen, su ta gar
ekin du Donostitik eriosuar
prantzes erbestear-
trintxeratan zear;
ta ara, garaipenez Ondarrabian sar!



Nun diraden prantzesak? Tximistak artuta
igesi junak dira ori ikusita.

Ondarrabin festa...

Ondo merezita!

Bidasoz-ona arrotz-aztarrenik ez da.

Aintza Arantzazuko Ama onarentzat,
aintza eta urrezko kollare eder bat,

beatzireun dukat

kostea baitipat,

opa dio Ondarrabik esker-ordaintzat!

Kantauri itxasoari Ondarrabik galde
omen zion: «Maitena, pozik al zaude?

Zurea naizelako jokatu naiz trebe

sasi-maitatzalleen aurka bi illabete.

Goiandre orixe,

dedala Zaintzalle,

nere poza auxe:

ekaitz-bildur gabe,

zure gañik-gain bogatzea, arrantzale!...»

*Sorgiñik nun? Egulari
uxatzera Andra-Mari...*

Arre-arre zalko-zalko erratza-gañetan

Akelarrera dijoaz sorgiñak aidetan

odei guzien azpitik,

sasi guzien gañetik.

Txiruliruli, txiruliruli.

Jentilletako denbora ote itzuli?

«Bagerala, Ez gerala»: mutil eta neska
edonundik batzen dira egitera festa.

Milla ta bosteun sorgin

dantzari Zugarramurdin,

Txiruliruli, txiruliruli.

Ango oju, ixkanbilla eta karraxi!

Dantza-sokaren erdian aker ipurbeltza.

Aker ipurbeltz itxuran deabru traketsa

da ango buruzagia,

«itxixo» nazkagarria.

Txiruliruli, txiruliruli.

Naparruan lengo fede garbia itzali!

Arre-arre zalko-zalko erratza-gañetan

astero ta kristau geio ostiral-gauletan

dijoaz Akelarrera,

akerra munegitera...

Txiruliruli, txiruliruli.

Nork aienduko ote du izurri ori?

Naparrura Arantzazutik mixiolariak.

Lau mixiolari trebe, santu ta argiak

bidali Andra-Mariak

kentzera sorginkeriak...

Txiruliruli, txiruliruli.

Andra-Mari bera ere mixiolari!

Gauetz argi Akelarren! Deabruak iges.

Neska-mutil sorgin danak jarri dira auzpez.

Nork esango-ta Andra-Mari

Akelarrera agiri!

Txiruliruli, txiruliruli.

Bai mintza ere euskeraz ondo poliki!

—«*Ene Seme Alaba*

txipi lantantxoak...

Utzi oitura zikin

lotsagarritzkoak.

Eliza Amarengana

biurtu pausoak.

Nik egingo zaitzudet

zorionekoak».



Aldapeko sagarraren adarraren puntan,
 —poxik baño poxikago— puntaren puntan
 txoria zegoan kantari:
 —«Sorgiñik ez duk, Euskalerrri!
 Txiruliruli, txiruliruli.
 Eskerrak Arantzazuko Zaindariari!».

Ildakorik? Egalari
 aiek pizten Andra-Mari...

Iñularreko euzki il-zoriak
 azken-agurra Arabari.
 Samaniego'ko neskato batek
 iltzer eriotz-oetik:
 —«Agur eguzkia,
 bizitz-iturria!
 E'tzaitut berriz nik ikusiko;
 illotzik biar zuk bai ni...»

Gaberdirako gorputz zegoan.
 Aideak biran negarrez
 Meltxora kottauaren illotza
 musuka berotu naiez:
 —«Ai gure txikia,
 gure poz guzia!
 Bañan nolatan etsi zu-gabe,
 ain goizo jun zatzaigunez!»

Arantzazuko Birjiñarentzat
 zun amak jaiera aundia.
 Orman zintzilik gelan bazizun
 aretxen margo-irudia:
 —«Ama zerutarra,
 nere uste bakarra!
 Bestek eziña Zuk lor zaidazu,
 piztu zaidazu txikia!»

Erregu ori egin bezela
 an doa illaren oera,
 ta amak gajoak oiu dagio
 makurtuz gorputz-gañera:
 —«Enetxo maitea,
 altxatu zaitea!»
 ...Ta bertan piztu nexka irriparez,
 xaloki itzeztuz gañera!:

—«Gutxi dakizu gerta zaidana.
 Zer zorialdi ai ena!
 Solas gozotan egon gaituzu
 ni ta Andrerik ederrena.
 Esango nik zein dan;
 dago zure gelan».
 Ta ara joanaz margoagatik:
 —«Auxe zan, ama, auxe zan!»

Goiza orduko aita ta amakin
 «Andra-Mariak piztua»
 Gipuzkoako Elgean-bizkar
 zetorren Arantzazura:
 —«Agur, eguzkia;
 ongi etorria!
 Argi zaidazu bein-berriz ere
 Mariarentzat bizia...!»

Katigurik? Egalari
 aien-billa Andra-Mari...

*Urrikal zaite, othoi, ait'amen nigarrez,
 itxasoz bertzaldean dituzketen haurrez.
 Artha izan ezazu haukien beharrez...*



Terranobara joan-etorrian

«Itsasoan urak andi...»
 Terranobara abia adi:
 goian oztiña, beian urdiña,
 ur eta ur beti...
 Sorterritikan urruti;
 baña biotza antxe geldi...
 Urrunago ta maiteagoa
 zaitugu, Laburdi!

Itxasoan urak gazi...
 Ez dakianak ikasi.
 Bakallutara Terranobara
 urtero goazi.
 Gurekin batean nasi,
 bi illabeteko zatozi:
 jakingo duzu ohea dela
 legorrean bizi!

Txango-aldi bakoitzean
 senarrok abiatzean,
 eundaka doaz Arantzazura
 andreak taldean,
 bide luze ta latzean
 gure alde otoitzean...
 Zeru-laguntza ondo bearra
 itxas aserrear!

Udara eldu orduko
 bueltan gaituzu aguro,
 Terranobako urak utzita
 beste urterako.
 Jan eta edan, bateko;
 kantu ta santzo, besteko.
 Etxerakoan pozik ez pa'da,
 gure poza noizko?

Miraria

Lutero'tarrak bein baten
 —zazpi ontxo baziraden—
 Ziburu'tarren ontzi xoil bati
 atzeman ziguten.
 Ontzia kendu ondoren
 —gutxitxo gu bai-giñaden—
 iru presatu, besteak utzi
 uretan itotzen...

Igeri eta igeri;
 legorrik, baña, ez nabari...
 Ito baño len danok promesa
 Aloñakoari.
 Bai eldu ere mirari,
 Zuri esker, Andra-Mari!
 Aitaren baten, bizirik danok
 errian agiri!

Beste irurak, artean,
 presondegi-illunpean.
 Rochela'z aruntz dezu Colona:
 ango leotzean.
 Zirgullu latzak soñean,
 goseak il-bearrean...
 Zerutar Amak aietxek ere
 salba azkenean!

Kandelargi bat eskuan,
 zeru-dirdira inguruan,
 orra non ager egatan Ama
 kartzela-barruan.
 A ze pozkida orduan!
 Bat-batez, itxu-itxuan,
 andik atera t'etxera bidez
 ipiñi zituan...



Aunitz esker!: ao-batez
 esatera Zuri auzpez
 pozik joango Zugana... Baña
 Bidasoa tartez...
 Alare, Zu gurtu naiez,
 Arantzeko Ama-izenez
 kaperatxo bat Ainho-gañean
 badizugu orde.

Ainho'ko kaper, elizatxo

An dago, txuri-txuria,
 mendi-gañean jaikia,
 Laburdi dana mende duela
 kaper argia.
 Bere oñetan barreia,
 errixka-artalde ugaria
 bazka gozotan, Artzain duela
 Ama Zaindaria.

Iru gurutze nabarmen
 mendixkaren gallen-gallen,
 Ama-Semeen Kalbarioa
 miñez gogorazten.
 Arantzazu-antza emen
 argiro zaio nabaitzen.
 Amalau gurutz bidean ere,
 antzago ditezen.

Begi-biotz eta gogo,
 Laburdi osoa an dago
 Arantzazuko «bere» Amari,
 auzpez belauniko,
 bear duna eskatzeko
 t'esker-onez kantatzeko
 antxe bakarrik asmatzen diran
 zenbait bertso goxo:

«...Handi ba'ða Jainkoa, haren Amak ere
 Zeruan bai lurrean badauka bothere
 Gure ihes-lekua, Birjina, zu zare
 hobendun gare, bainan zureak alere...

Urrikal zaite, othoi, ait'amen nigarrez,
 itxasoz-bertzaldean dituzketen haurrez.
 Artha izan ezazu haukien bearrez,
 bainan oroz gainetik gaixoen arimez.

Hor zaudenaz geroztik hoin gora jarria,
 Ama, begira zazu Eskualdun Herria.
 Ainhoaren gainean zaude atzarria,
 dezaten froga denek zure sokorria.

Arantzeko Birjina, ez da zure haurrik
 bere salbamenduaz etsi dezakenik.
 Ikusi bear duen jujearen gatik,
 Zu berme, deskantsuan dohala mundutik.

Bai, hurbiltzen denean hiltzeko orena,
 Hel eginen dautzugu denek, Ama ona.
 Mihian erabiliz maiz zure izena,
 hillen gare bakean: Oi zer zoriona!»

Euskal-anai aien pare,
 Ama berari guk ere:
 «Pekatarriak gaituzu, baña
 zureak alere».
 «Zureak, bai... zure... zure...
 esanaz bein-berriz ere,
 Ama-besotan loak artzea
 baño oberik ze?...

Aingeruen kanta da
 illuna eltzean:
 —«Gloria Zeruetan;
 pakea lurrean.
 Zeruko Aurzaiaren
 ego-babesean
 lo dagin Erriari...
 pakea lurrean.
 Pakea lurrean ta
 Zerua iltzean!»



STELLA MARIS

Mariñel-erria

«Boga, boga, mariñela!
Joan bear degu urrutira!»...

Berezkoa izan du euskaldunak itxaso-miña, urruti-miña. Gure gizon ospatsuenak naiz gure santuak itxasoz ibilliak dituzu, ta itxasoz ibillita arkitu zuten beren aintza ta aunditasuna.

Arantzazuko Amaren mirari geienak ere mariñelentzat izan dira.

«Entre todas las suertes de gentes, los que más de ordinario acuden con largueza de limosnas son los mareantes, que siempre que en sus naufragios y trabajos navales, invocan el nombre y devoción desta santa casa son socorridos y remediados». (Esteban de Garibay).

«Boga, mariñela,
boga urrutira.
Bai Indietara,
bai Indietara!»

Eskuetan arpoia
ta soñean zira,
itxasoz jo dezagun
jo Ames-errira,
lur berririk agiri
ote dan begira...

Ai urruti-miña!
gaitz senda-eziña,
baña ala ere
ondo atsegiña.

Min izkutu orretzek
beti eragiña,
euskal-Kondaira doa
itxasoz aitzina.

Egonak pozik ez du.
Boga alegiña!

Mariñel-erria
da Euskalerria;
ta itsasoa, euskal
-miñen ataria.
Legazpi ta Urdanetak
beren Goierria,
Okendok ta Elkanok
aldiz Kosterrria,
itxasoz daramate
euskal-Edestia...

Entzun, mariñela,
entzun itxasotik
datorkizun deia,
lilluraz beterik:
«Atozkit... Zure leiak
ez dute naikorik
nere ur zabaletan
bogatzean baizik.
Euskal urruti-miñak
aseko ditut nik!»

Zori obearen
atzetikan goazen,
biotzak non dezan,
non dezan atsedan...
Lur ezaguna atzean
utzi ezkutatzen;
ugarte berriren bat
nunbait azalduren...
«Lurra! Lurra!» azaltzean
zer dan poz jakiñen.

«Zorion! Zorion!»
nai ba'dezu topo,
abia itxasora,
ibillian dago.



«Lurra! Lurra!» azaltzean
ez da an gelditzeko,
bat ezagun orduko
bestera abitzeko.
Lur guziak baño re
Zoriona arago!

Ai urruti-miña!
gaitz senda-eziña,
baña ala ere
ondo atsegiña...
Min izkutu orretzek
beti eragiña,
euskal-Kondaira doa
aitziña ta aitzina...
Egonak pozik ez du.
Boga alegiña!

Gaur lagun, biar etsai.
Nola gizartea
ala itxas-legea:
batzutan aserrea,
bestetan barea.
Bular dardaratsuak
kolko saltzallean
ezin asma daikezu
zer dizun gordea:
agian mesedea,
agian kaltea.

Eskandinabiara,
Baltikora berdín,
ekin bear, ekin...
Baezpada on dezu
errezatzen jakin.
Ez ba'dakizu ere,
etorri gurekin
ta ikasiko dezu, bai,
maixu on batekin.

Ondo ikasiko ere
itxas-orroakin!

Terranoba-kaietan
gure-zai berreun
galeoi euskaldun;
ta izotzetan lotuak
zazpi milla lagun.
Sorterriko laguntza
eraman deiegun
ta albiste eman esanaz
nola bete degun
berenez ezin zuten
promesa Arantzazun...

Atzerri-jelapean
asko dira illik,
aberri-gaberik,
ez aintza t'ez erruki
Jainkoagan baizik.
Ez dute illobitan
euskerazko itzik
bizidunai esanaz
euskalki motx-motxik:
«Umantak izan giñan,
ta ez aintzagatik!».

Gero esango dute
euskal-mariñela
ixillegi dala,
egiten luzea ta
kontatzen motela.
Ez degu nai aintzarik.
Ez gera orrela.
Aintza izatekotan,
anaiak bezela
illak ere bai, edo
iñork ez bestela!



Ezta etxetan ere
ez iñori esan
nun-nola gabiltzan.
Egongo bai-lirake
gau t'egun kezketan.
Arantzazuko Amak
badaki zer geran.
Aski da Ark jakitea
gure neke ta lan.
Amarekin, orratik,
badakigu izketan!

Estualdi bakoitzan
Ari erregutzen
ez gera aspertzen.
Aren laguntza gabe
bizirik nola irten!
Eska-ala mesede
dizkigu egiten.
Miraririkan ere
ez digu ukatzen.
Ama lagun, ekaitzak
ez gaitu kukiltzen!

Brasil'eko uretan
nola Pernanbuko?
Gogora an Okendo,
Olandarra'ren kontran
gudua galtzeko...
Andra-Marin laguntza
eskatu orduko,
etsaiak zarrapaztan
iges sekulako...
Bala bat oroigarritz
Arantzazun dago!

Ondarrua, Bermio,
Zumaia, Lekeiti,
Getari, Donosti...

—Kosta-errixka danak
esazu ta segi.
—Kosta-erri ia danen
oitura bai ori:
urtero bialtzea
bi-iru mandatari,
Meza ta Benedita
eskeintzera Amari.

Kai ez-ezagunen bat
nunbait topatzean
Amerika-aldetan,
ez ibilli galdezka
euskaldunik badan.
Ez dizute ulertuko.
Obe dek, arean,
elizara joanda
begira aldarean,
Aloñako Amaren
imajiñik badan.

Galde orduko: Zuek
ere euskotarrak?
—Ta kofraditarrak!
(erantzuten digute
ao-batez danak,
euskaldunak ez-ezik
naiz Santander'tarrak,
Ama ura gurekin
goratzen azkarrak).
Danok Zaindari degu!
Berari eskerrak!

«Boga, mariñela,
boga urrutira.
Bai Indietara,
bai Indietara!»
Ezkerrean gurutzza



t'eskubian lema,
euskal-Fedea ere
itxaso-barrena,
nun agiri ta salba
anima geiena.

Bai ontzi lerdena
euskal-Sinismena,
«Loiola-Arantzazu»
daramala izena!
Martin, Berriotxo,
Xabier-urrena:
iru probintzi dira
ta iru Ordena
Asia'ra bidean
itxaso-barrena...

Txina'ri arpegi,
iltzeko etzanik,
Xabier'ek negar
Japon'go kostatik:
—«Eriotza, ez eldu,
ez eldu oraindik.
Txina osoa deika,
arrena dagokit.
E'tzait zillegi izango
ara joaterik?»...

Ai urruti-miña!
gaitz senda-eziña,
eriotzak ere
aiendu-eziña.
Mixiorako leiak
beti eragiña,
naikorik-gabe doa
euskal-Fede ziña...
Egonak pozik ez du.
Boga alegiña!

Gidari bezela
Iñazio bera
itxasoz dijoa
Jerusalen'era,
Jaungoikoaren aintza
'rik aundienera!...
—*Duc in altum...* Jo itxasoz!
Jesusen deiera,
euskal-Fedea ere
patroiaz batera...

Oi Tiberiade,
itxas danen lege,
bizitza beraren
irudi zerade!
Mariñelak dabiltzan
urez bestealde,
ames danen Mendia
beti ikusten zaude:
Zorionak esaten
Kristo, zutik, antxe!

Entzun, euskal-Fede,
entzun urez-andik
Mendiko itzaldia
Kristoren aotik:
—«...Txit zorionekoak
aberri-gaberik
Nigana datozenak
itxas zabaletik.
Gose-egarri diranak
aseko ditut Nik!»

Galeoi lerdena
euskal-Sinismena,
«Loiola-Arantzazu»
daramala izena!
Naikorik-gabe doa
itxaso-barrena,



Andra-Marin eskutik
ziur ta zuzena...
Kristorekin bakarrik
nai du Atsedena!

*(Himno bat bezela,
astiro ta luze:)*

Ez da, ez da pozik
au bezelakorik!
Kristogana boga
Amaren eskutik!
Ordu onean gatoz
urez-betidanik!
Ama-Semeakin bat
topa geranetik,
«Zeru! Zeru!» diogu,
naikoa egiñik...

AMA-SEMEAK!

«Ermitatxo bat eidazu eta nerea izango zera zu»:
eskatu ta eskeñi zionari, himno kantari datorkio
emen Euskalerria, Magnificat batean bukatuz.

—Orra. Zure esanera, Ermita egin degu. Bein ta
berriro jaso dizugu arrizko eliza. Osatzen goaz
Kristoren Gorpuzgintza. Zure esanera dago euskal-
Kondaira osoa.

(Ta bertan galdera:)

—Ama, pozik al zaitugu?

Galdetu-ala bakoitzean, Euskal-Fedearen biotz-
begiak pozaren pozez ditzira bizian argitzen dira,
irakurtzen bai-dute Amaren betiko irriparrean
baiezko erantzuna, erantzun opa guzizkoa:

—Bai, enetxo, pozik nago. Seme zaitut, Ama nazu.

Orra Eliza jaso,
amaika aldiz eraso,
zenbat leien arazoa!

Biotz bakoitzean begira zazu
ermitatxo eroso.
Begira Ama gozoa!
zure esanera jaso
euskal-Kondaira osoa!

Euskal-semeen begiak,
zureganako geziak,
zuregan daude josiak.
Arantz orretan kakotzen dira,
zurearekin nasiak,
gure gogo ta biziak,
yoran eta kutiziak,
euskal-gizaldi guziak!

Ermitatxo bat eidazu
—eska zenun. Egin degu.



Ditun utsak zeuk edertu.
 Zure esanera, euskal-Kondaira
 Kriston Gorpuzgintza dezu.
 Bein-berriz esan zaiguzu,
 bein-berriz entzun nai degu:
 Ama, pozik al zaitugu?

Zure betiko irriparreak
 baietz erantzuten digu!
 Ama pozik! Ta pozik gu!
 Zurekin, Ama-Arantzazu,
 Magnificat dabetesagu.

Goraipa Jauna. Geran guzia
 Jainkoari zor diogu.
 Gurekin, oro dezakeanak
 gauza aundiak egin ditu.
Et exultavit... Amaren poza
 semeen pozak geitzen du.
 Zorioneko Erririk ba'da,
ecce enim... Amarekin gu!

Ta, Amarekin bat, euskal-Fedeak
 MAGNIFICAT jarraitzen du.